



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

IPES Fundazioaren proiektua

www.cineddhh.org



Unitate didaktikoa (euskaraz)

Kontsumo arduratsua: Irauli etiketa



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

Giza Eskubideen ikuspuntutik eta zinemaren bidez ulertzea mundua. 18. unitate didaktikoa.
"Kontsumo arduratsua: Irauli etiketa".

Egileak:

Rut Iturbide Rodrigo, IPES Fundaziokoa

Banesa Cisneros Rodriguez. Sumaconcausa

IPES FUNDAZIOA – 2019ko abuztua

Descalzos k., 72, behealdea - 31001, Iruñea (Nafarroa)

948 22 59 91 – fundacion@fundacionipes.org

www.fundacionesipes.org

www.cineddhh.org

"Antzitatespen - Ez komertzial - Obra eratorririk gabeko 3.0 Espainia (by-nc-nd)" lizentziapean dago lan hau.

Lizentziaren kopia bat ikusteko, jo webgune honetara:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Testuak, argazkiak, grafikoak, irudiak eta izenak, logotipoak, merkataritzako markak eta zerbitzuko markak komunikabide eta webgune desberdinen jabetzakoak dira, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

Aurreko azalaren diseinua: Iratxe Esparza (PUNTO Y SEGUIDO)

Euskarazko unitate didaktikoa - © 2019 Fundación IPES

AURKIBIDEA

I. Unitate didaktikoaren aurkezpena	2
I.1. Zergatik egin ezaugarri hauek dituen unitate didaktiko bat?	2
I.2. Unitate didaktiko hau kokatzen den esparru normatiboa eta heziketa-mailak	2
I.3. Unitate didaktikoaren hartzaileak eta egitura	3
II. Helburuak	4
II.1. Helburu orokorra	4
II.2. Berariazko helburuak	4
III. Metodologia	4
IV. Oinarrizko gaitasunak	5
V. Eduki kontzeptualak	6
V.1. Garapen ekonomikoa	6
V.2. Iraunkortasuna edo jasangarritasuna	7
V.3. Kontsumo arduratsua	8
V.4. Kontsumo-burujabetza	9
V.5. Kontsumoa, premiak eta zoriontasuna	10
V.6. Komunikazioa eta publizitatea	12
V.7. Zaharkitze programatua eta hautemandakoa	13
V.8. Aztarna ekologikoa eta hidrikoa	13
VI. Jarduerak	17
1. saioa: Iraunkortasuna	17
2. saioa: Identitatea eta beharrak I	21
3. saioa: Identitatea eta beharrak II	23
4. saioa: Identitatea eta beharrak III	26
5. saioa: Zaharkitzea	27
6. saioa: Kontsumo arduratsuko jardunbide egokiak	29
7. saioa: Kontsumitzaileen burujabetza I	30
8. saioa: Kontsumitzaileen burujabetza II	33
VII. Ebaluazioa	34
VIII. Bibliografia	35
IX. Eranskinak	38

I. AURKEZPENA

I.1. ZERGATIK EGIN EZAUGARRI HAUEK DITUEN UNITATE DIDAKTIKO BAT?

Gaur egun dugun masen kontsumo-eredua Hegoaldearekin ezartzen diren harremanetako desberdintasunen eta ingurumena andeatzen joatearen egiturazko arrazoitzat jo daiteke. Hori dela-eta, **ezinbestekoa da eredu hori –gurea– desnaturalizatzea** zenbait estrategiaren bidez. Lehen estrategia, eredu horren analisi kritikoa egitea, nagusiki hauei dagokienez: ekoizpen-prozesuen eraginak; munduko herrialde desberdinetako pertsonen eskubide ekonomikoak, politikoak eta sozialak galtzea (esate baterako, lan-merkatua desregularizatzea, mugak ixteko politikak eta abar); natura-baliabideen espoliazioa eta bai pobretzen ditugun herrialdeetako pertsonen espoliazioa ere; eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak bai iparraldean eta bai hegoaldean ere. Bigarrena, kontsumitzaile garen neurrian dugun ardura eta erantzukizunaren gaineko kontzientzia hartzea. Eta hirugarrena, argi eta garbi bidegabea den baina gizarteak onartzen duen egoera bat aldatzen hasteko gure esku ditugun tresnak ezagutu, erabili eta sustatzea. Tresna horiek, besteak beste, zenbait produktu erosteari uztea izan daitezke, nazioarteko estandarrak ez betetzeagatik (ekoizleak esplotatzea, zenbait herrialde eta bertako biztanleak pobretzeko ekoizpen-prozesuak...), edo ekoizpeneko, ingurumena andeatzeko eta abarretako hainbat jokabiderekin desadostasuna ikusgai egiteko ekintzetan parte hartzea (produktuak biltzeko erabiltzen duten eta beharrezkoa ez den plastiko guztia itzultzea supermerkatuan...).

Horretarako guztirako, funtsezkoa da hau ulertzea: **ekosistemak andeatzen joateak** eta egunero-egunero lekukotzak ditugun **giza eskubideen urraketek** ustez “garatuak” (edo hareago, “desarrollistak”) eta aberastuak diren **Iparraldeko** herrialdeen **bizi-estiloan dutela jatorria**; zehazki, beren **kontsumo-ereduetan**. Eta unitate didaktiko honek haiek nabarmendu nahi ditu, arrazoiak, ohiturak eta abar lantzen, bai Hegoaldeak eta bai ingurumenak ere nozitzen dituzten ondorioetan aldaketak lortzeko.

Edonola ere, ezin da ahaztu kontsumo-eredu hori babestu egiten dutela korporazio handiek eta beren hedabideek. Hain zuzen, ekidin egiten dute beren jardunbide okerrak ikusgai egitea, bai eta haiek eragiten dituzten ondorio suntsitzaileak ere edo, era berean, planeta osoko leku desberdinetan pertsona asko gauzatzen ari diren alternatiba iraunkorrak. Hori dela-eta, **kontsumo arduratsuaren gaineko heziketa** oinarritzkoa da, kontsumoko lobby edo presio-talde handien informazio-boterea berdintzeko izan dezakegun tresna gutxietako bat baita, eta bai, aldi berean, gure belaunaldiak eta etorkizuneko kontsumitzaileak eraldaketarako baliabidez eta tresnaz hornitzeko ere.

I.2. UNITATE DIDAKTIKO HAU KOKATZEN DEN ESPARRU NORMATIBOA ETA HEZIKETA-MAILAK

Unitate didaktiko hau DBHko bigarren zikloko (4. maila), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako graduetako ikasleekin erabiltzeko diseinatu da. Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuan, 4. artikuluan, etaparen helburuak adierazten dira. Zehazki, unitate didaktiko honek a), e) eta g) atal edo idatz-zatietan jartzen du arreta:

- 4.a) Beren betebeharrak arduraz bereganatzea, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatzea; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeta; elkarrikteta gauzatzea giza eskubideak eta

emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sendotuz, horiek guztiak gizarte plural batean amankomunak diren balioak direlako; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatzea.

- 4.e) Oinarrizko trebetasunak garatzea informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien eremuan oinarrizko prestakuntza eskuratzeko, bereziki informazio eta komunikaziokoetan.
- 4.g) Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasuna garatzea.

Beste alde batetik, dekretu berean, baina 7. artikuluan, Bigarren Hezkuntzan sartu behar diren zeharkako elementuak definitzen dira. Elementu horien artean, garapen iraunkorarekin eta ingurumenarekin lotutako edukiak barne hartzea dago, 2. atalean.

Era berean, unitate honetarako, 7. artikuluko 3. atala ere nabarmena da: “Halaber, curriculumeko osagaiak gehitu dira ondokoetara bideratuta: ekintzailetza garatu eta sendotzea; enpresa eredu desberdinak sortu eta garatzeko gaitasunak eskuratzeko; aukera berdintasuna, eta ekintzailea eta enpresaria errespetatu daitezen sustatzea; [...]”

I.3. UNITATE DIDAKTIKOAREN HARTZAILEAK ETA EGITURA

Unitate didaktiko honen hartzaileak irakasleak dira. Helburua da irakasle horiek ***masen kontsumo-ereduaren arrazoiak eta ondorioak ulertzeko jarduerak*** egin ahal izatea. Horretarako, eduki teorikoak eta ikasleekin erabili daitezkeen material eta jarduerak zehatzak ematen zaizkie. Material eta dinamika horiek egokitu egin daitezke, bai hartzaile zehatzak aintzat hartuta, bai eta haien kopurua eta berariazko beharrak ere kontuan hartuta. ***Unitate didaktikoa zortzi ataletan egituratzen da:*** lehenbizikoan, unitatearen premia justifikatzen da; gero, helburuak eta oinarrizko gaitasunak biltzen dira, baita eduki kontzeptualak eta garatzekoak diren jarduerak ere. Geroago ebaluazio-mekanismoak ezartzen dira, erabilitako eta gomendatutako bibliografia ere ageri da, eta, azkenik, zenbait eranskin daude, proposatutako jarduerak egiteko moduko material beharrezkoak biltzen dituztenak.

II. HELBURUAK

II.1. HELBURU OROKORRA

Kontsumoko gizartearen ereduaren arrazoien eta ondorioen gainean gogoeta egitea, eta bai alternatiben gainean ere, espirtu kritiko bat garatzearen bidez, kontsumo arduratsuko ohituretara hurbiltzeko.

II.2. BERARIAZKO HELBURUAK

- *Kontsumoko sistemaren estrategien/tresnen gainean kritikoki hausnartzea; kontsumoko gure erabakiek oinarrian dituzten parametroen gainean; kontsumo arduratsu baterantz ohiturak aldatzea zailtzen duten arrazoien gainean (erosotasuna, abiadura, gehiegizko informazioa, gehiegizko estimulazioa...); kontsumoko ohituren eraginen gainean, eta bai ingurumenean, lan-arloko eskubideetan, eskubide sindikaletan eta hura• manoetan eta pertsonen garapen psikoemotionalan dituzten ondorioen gainean ere.*
- *Kontsumo arduratsuko eta iraunkorreko alternatibak identifikatu eta lantzea; eta ekonomia-sistema errespetuzkoa eta iraunkorra sustatzen duten gizarte-mobilizazioko adibideak ezagutzea. Ekonomia-sistema hori jarrera positiboetan eta lankidetzarako trebetasunetan ardazten da, gizartean harremanak edukitzeko eredu moduan lehia izatearen aurrean.*
- *Kontsumo arduratsuaren, kritikoaren, kontzientearen, eraldatzailearen eta iraunkorraren kontzeptuetara hurbiltzea. Eta enpatiazko jarrerak garatzea ingurumenarekiko eta ekoizleen lan-eta sindikatu-eskubideekiko.*

III. METODOLOGIA

Unitate didaktiko honetako **metodologia** nagusiki **parte hartzekoa** da, eta **bakarkako eta taldekako dinamikak konbinatzearen** bidez ezagutza eraikitzean oinarrituta dago, batez ere azken horien bidez.

Hori guztia aintzat hartuta, zenbait irizpide metodologiko gako ezartzen dira unitate didaktiko hau praktikan jartzeko:

Alde batetik, saio bakoitzaren hasieran, garrantzitsutzat jotzen da talde osoak **minimoen akordio** bat izenpetzea, funtsezkotzat hartzen diren **bizikidetza**-balioetan eta -arauetan oinarrituta: bai orokorrak –errespetua izatea, entzutea, ez epaitzea–; bai **genero-ikuspegia barnean hartzen dutenak** ere –ikaskide neskei hitz egiten uztea, talde txikiak osatzea nesken arrazoibideak entzuteko aukera egon dadin, neskek ere bozeramaile moduan parte hartzea sustatzea, edukiekin eta gertaerekin ez ezik, emozioei tartea eta garrantzia ere emanez lan egitea...–.

Beste alde batetik, **ikasleek jada badakitenetik abiatuta eta hari balioa emanda** garatuko dira **saioak**, ezagutza beren **aurretiazko ideien, gogoeten eta abarren gainean eraikitzen**. Ez dakiten hura elkarrekin formulatuko dute berriro, eta irakasleek

prozesu hori babestuko dute. Hartara, ez dira eskola magistralak izango, baizik eta prentsamendu-eredu eta garapen kontzeptual inductiboa ezarriko da, ikasleek –eta hori ezin dugu ahaztu– asko baitakite. Beren ezagutzei balioa emateak berebiziko garrantzia du, beren iritziak eta jakinduria garrantzitsuak direla ohar daitezen eta gizartea eta aurreiritziak aldatzea beren esku ere badagoela ikus dezaten eta horren ardura har dezaten. Saioak parte hartzeak izango dira eta **esperientziaren bidez ikastea oinarritutakoak**, sentitzen edo esperientziatzen dena gure memorian luzaroagoan finkatuta gelditzen baita.

Eta azkenik, animatu nahi ditugu **irakasleak saioak hasi aurretik** (lehenbizikoan izan ezik) **ikasleei galdetzeraz zer duten gogoan aurreko saioan jorratutakoaz**. Eta, **zalantzaren** bat gelditu bada, egiten ari diren bidea denek ulertzen dutela ikustea garrantzitsua denez, **argitu ahal izatea**. Gainera, hala jarduteak *feedback* moduan balio du, jakiteko, batetik, ideia nagusiak helarazten eta ulertzen ari diren, eta, bestetik, proiektuan aurreikusitako helburuak lortzen ari diren.

Taldeak egituratzeari dagokionez, esan behar da, irakasleek taldeak egin behar dituztenean, talde horiek bi ezaugarri izango dituztela: lehenbizikoa, **talde horiek eratuko dituzten kideak, gehienez ere, bost izango dira** (dena den, ikasgelan dagoen ikasle-kopuruaren eta jarduerarako behar diren taldeen arabera izango da kopurua beti); eta bigarrena, **talde horiek sexuaren arabera ere banatzea**. Hartara, soil-soilik neskenak diren taldeak egongo dira, soil-soilik mutilenak eta bai talde mistoak ere. Sexuan oinarritutako banaketa triangeluar hau proposatzen da, Mercedes Bengoecheak (2005) esaten duen moduan, neskek eta mutilek komunikazio-eredu desberdinak dituztelako, eta, eskuarki, mutilena nagusitzen delako. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da espazio txikiak eta erosoak sortzea neskentzat, gainerakoan, gizartean naturalizatutako joera baita mutilen diskurtso hegemonikoaren erreproduktzio hori berriro gailentzea talde mistoetan, nesken iritziak isilarazita. Horrenbestez, helburua da neskei eta mutilei entzutea, eta bai talde mistoetan esaten dena ere, eta egiaztatzea ea azkenean diskurtsoren bat era orokortuan hartzen den edo ez. Behaketa hori, bere horretan, emaitza bat da.

IV. OINARRIZKO GAITASUNAK

- a) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- b) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- c) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- e) Ikasten ikasteko gaitasuna.

V. EDUKI KONTZEPTUALAK

V.1. GARAPEN EKONOMIKOA

Garapena egiturazko aldaketa-gisa ulertzearen jatorria deskolonizazio-garaietan dago, II. Mundu Gerraren ondoren. Epe luzeko ikuspegi bat da, herrialdeen **historia ekonomikoa aztertzetik** hasten dena, aurrerabidearen egungo erronkak ulertzeko eta etorkizuneko estrategiak planteatzeko. Ikuspegi horren nobedade nagusia da herrialde pobretuen eta “herrialde azpigaratu” moduan gaizki izendatutakoen garapen-prozesuei heltzeko helburu aitortua, garai haietako ekonomia ortodoxoko pentsalariak urrundu zituen (“herrialde industrializatuak” aztertzean arreta jartzen zuena, lortzen ziren irakaspenak gainerako ekonomietan aplika zitezkeen ustearen pean, espoliazioko, ekoizpeneko eta abarreko egiturazko dinamikak bereizi gabe). Analisia egiteko ikuspegi berri honek –“azpigarapena” gainditzean ardaztua– hazkunde-prozesuaren alderdi gako batzuk identifikatzeko bidea eman zuen, besteak beste, industrializazioa, urbanizatzea, landatik hirirako exodoa eta egiturazko gizarte-aldaketa.

Garapena “**eraldaketa-prozesu**” gisa ulertzen da, zeinetan gizarteak “**ekonomia tradizionaletatik**” (nagusiki landakoak, nekazaritzakoak eta ez oso produktiboak) “**ekonomia modernoetara**” igarotzen diren (gehienbat hirikoak, industrialak eta oso produktiboak). **Lanaren produktibitateak** aurrera egitea da, zehazki, pertsonen bizi-mailak hobetzea errazten duena; izan ere, produktiboagoak diren gizarteak lana hobeki ordaintzeko gauza baitira, eta horrek, ondorioz, ahalbidetzen die pertsonari beren ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa handitzea (eta kontsumo handitu horrek, era berean, eragiten du ekoizpena hedatzea, hazkunde-prozesua berriro elikatzen duena). Hartara, ikuspegi honetatik, garapena (ekonomikoa) ekonomien *per capita* errentaren hazkunde-tasaren arabera neurtzen da (herritarrek ondasunak eta zerbitzuak erosteko duten gaitasunaren batez besteko adierazlea da).

Egun, oraindik ere hazkunde ekonomikoa da (barne-produktu gordinaren bidez) herrialdeen “**osasuna**” baloratzeko erabiltzen den neurri orokorra. Hura kontsumo-gizartean gauzatzen da, hazi eta garatzeko ekoizpen handiagoa behar baitu, eta horretarako, kontsumo handiagoa. Edonola ere, hazkundearen edo garapen ekonomikoaren kontzeptzio honek **hainbat muga ditu**:

- 1) Hazkundearen banaketa-eraginei emandako arreta eskasa.
- 2) Garapena adostasunezko prozesua eta agente soziopolitiko guztientzat onuragarria dela ulertzea, gizarteko talde desberdinen artean interes-gatazkak egoten direla kontuan hartu gabe (esate baterako, langileen eta enpresaburuen artean) eta bai herrialdeen artean ere (bereziki, herrialde aberastuen eta pobretuen artean).
- 3) “Determinismo historikoranzko” joera eta industrializazioa aurrerabide ekonomikoaren “bide unibertsal” gisa identifikatzea.
- 4) Ekonomiaren “modernizazioa” “azpigarapena” errotik ateratzeko estrategia giltzarri moduan gorestea, eta, horrenbestez, oso positiboa den zerbait moduan, garapen horretarako eragozpen gisa, hau da, negatiboa den zerbait moduan, jotzen ziren jardura tradizionalen kaltean.
- 5) Hazkunde ekonomikoa garapenaren helburu eta azken “xede” moduan hartzea, eta ez pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko “bitarteko” moduan.
- 6) Eta, azken batean, *garapena* ikuspegi bakar batetik, ekonomikotik, eta, hortaz, partzialetik, ulertzea, gizakion ongizatea ekartzen duten beste ikuspegi batzuk aintzat hartu gabe (sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumenekoak).

Hazkunde ekonomiko lineal esponentziala ulertzeko muga horiek baliabide mugatuak dituen mundu batean ondorio txarrak eragiten dituzte gizartean eta ingurumenean:

- **Gizarteari dagokionez**, hauek aipatu behar dira, besteak beste: lan-eskubideen eza (lanaldi luzeak, oso soldata murrizak, osasungaitzak diren lan-baldintzak...); gaitasunen garapen-eza; dirutzen ez den lana ikusezin egitea, batik bat etxeko zereginak eta zaintza-lanak, funtsean emakumeek egiten dutena; bereizkeria soldatetan emakumeen eta gizonen artean; familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurrien eza eta erantzunkidetasun-eza gizonen aldetik.
- **Ingurumenari dagokionez**, besteak beste, ondorio hauek adierazi behar dira: kutsadura (poluzioa, isurpenak, hondakinak); basogabetzea; habitat naturalak desagerraraztea, eta ondorioz, hartzen dituzten flora eta fauna; baliabideak ahitzen joatea; eta abar. Hazkunde ekonomikoa (eta horrekin baliabideak) mugagabea den zerbait gisa ulertzen duen garapenaren ikuspegitik eratorritako arazoarekin dute zerikusia ondorio horiek. Ingurumenaren baliabideak, ordea, mugatuak dira, eta, hortaz, ekonomia kapitalistan planteatzen den hazkunde jarraitua ez da iraunkor edo jasangarria.

V.2. IRAUNKORTASUNA EDO JASANGARRITASUNA

Iraunkortasun edo jasangarritasunaren egungo kontzeptua Brundtland txostenean agertu zen lehenbiziko aldiz (*Gure etorkizun komuna* ere esaten zaio), 1987an kaleratua. Nazio Batuen Erakunderako egindako dokumentu horrek ohartarazi zuen lehen aldiz **garapen ekonomikoaren eta globalizazioaren ingurumen-ondorio negatiboen gainean**, industrializaziotik eta biztanleria-hezkundetik eratorritako arazoei irtenbideak eskaini nahian. Hamarkada batzuk geroago, iraunkortasunak **oraingo beharrak bermatzeko asmoa du, etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jarri gabe**.

Ekonomia kapitalista eta desarrollistaren ereduak, egungo gizartean, lineala izan da, eta **fase desberdin hauetan** oinarritzen da: a) lehengaiak **erauztea**, b) **manufaktura eta ekoizpena**, c) **banaketa**, d) **erosketa** eta, azkenik, e) **hondakina**.

Ikus ditzagun inguru sozialeko arazo nagusiak fase horietako batzuetan:

- Natura-baliabideak erauztean, naturatik lehengaiak eta energia lortzen dira, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko. Baliabide horietako asko ez dira berriztagarriak edo oso motel leheneratzen dira, eta horrek arazo bikoitza dakar berekin. Alde batetik, hainbat baliabideren leheneratze-gaitasuna edo zikloak bestelakotzen ari gara (esate baterako, uraren zikloa). Eta bestetik, asko kutsatzen dugu lehengaiak eta energia ekoizteko (adibidez, erregai fosilak erretzea).
- Egiteko fasean, substantzia kimiko kaltegarriak sartzen dira, ekoizpena erraztu eta handitzen dutenak, eta ekoizpen hori herrialde pobretuetara deslokalizatzen da. Herrialde horietan, askotan, legezko minimoak ez dituzte betetzen (ingurumenari, gizarteari, lanari eta abarri dagokienez) eta azpiproduktu kutsatzaileak edo toxikoak sortzen dituzte.
- Produktuen ekoizpenean eta banaketan, beste arazo batzuk daude, askotan produktuen prezioak ez baitu erakusten edo jasotzen benetako ingurumen- edo gizarte-kostua (adibidez, kutsaduraren edo eskulan merkearen eraginak), eta arazo horiek pertsonen bizi-kalitateari eta osasunari eragiten diote. Oihartzuna ez duten ingurumen- eta gizarte-kostu horiei *kanpo-efektu negatibo* esaten zaie.

- Erosketaren fasean, nabarmendu behar da hazkundera zaharkitze programatuan oinarrituta dagoela, hau da, produktuen kontsumo errepikarian, gero eta motzagoa den bizitza erabilgarria izanez.
- Azkenik, esan behar da produktu gehienak zabortegetara botatzen direla edo erre egiten direla beren balorizazio energetikorako. Zaborraren mailak bikoiztu egin dira azken hogeita hamar urteetan, eta beren kudeaketa arazoa da berez.

Hori guztia aintzat hartuta, esan behar da **kontsumo-eredu hori ezin eutsizkoa dela epe luzera**. Konponbidea da estatuek, enpresek eta herritarrok ekonomia eraldatzea. Estatuek ekoizpen arduratsua sustatu behar dute, eta enpresek errespetuzko eran ekoizteko eta beren produktuen kanpo-efektuak onartzeko legeak egin behar dituzte. Produktuak modu arduratsuan diseinatu behar dituzte enpresek, eta ekoizpeneko eredu lineala baztertu eta zirkular¹ baterantz egin behar dute, non produktu zaharkituak konpondu, berrerabili eta baliatu egingo diren. Eta herritar kontsumitzaileok produktu arduratsuak exijitu behar ditugu eta informazioa oinarri duten erosketen erabakiak hartu behar ditugu.

Iraunkortasunak planteamendu holistikoak exijitzen ditu, globalak. Gizateriak aurre egin behar diren eta elkarren artean konektatuta dauden arazo guztiak aintzat hartzea exijitzen du, eta hori planeta-mailan baino ezin da egin, arazoak, izan ere, planeta-mailakoak baitira. Beraz, ez du zentzurik hiri edo herrialde iraunkor bat izateko helburua edukitzeak, baina badu zentzua herrialde batek, hiri batek, banako baten ekintzak, iraunkortasuna laguntzeak.

Garapen iraunkorraren ideiak, ordea, ez du inolako zerikusirik desarrollismo horrekin, eta, María Novok adierazten duen moduan (2007), esan nahi du: ikuspegia aldatzea, gizateriaren eta naturaren arteko erlazioen konplexutasuna barne hartzen saiatuta. Horrek esan nahi du **garapena egon daitekeela**, hobekuntza kualitatiboa edo potentzialtasunen hedatzea, **baina ez dakar berekin hazkunde baten beharra**, hau da, eskala fisikoaren emendatze kuantitatiborik gabe, energiaren eta materialen kuantitate handiagoa barne hartu gabe. Bestela esanda, **hazkundera** da mugarik gabe jarraitu ezin duena mundu mugatu gabea, baina **garapena** egon liteke. Egon liteke eta beharrezkoa da, egungo bizimoduak ezin baitute aurrera jarraitu. Aldaketa kualitatibo sakonak egin behar dira, bai eskasian bizi direnentzat (gehienak) eta bai gehiago edo gutxiago eroso bizi direnentzat ere (%20 inguru). Eta aldaketa kualitatibo horiek garapena dakarte (ez hazkundera), era egokian diseinatu eta bideratu beharko dena.

V.3. KONTSUMO ARDURATSUA

Aurretik esandako guztia aintzat hartuta, eta ideia hauetan oinarri hartuta, **kontsumo arduratsuak** hitz egiten dugunean ulertzen da **produktuak eta zerbitzuak, kalitatean eta prezioan oinarrituta ez ezik, beren ingurumen- eta gizarte-inpaktuan oinarrituta ere aukeratzeari dagokiola**. Era berean, aukeratzean produktu horiek egiten dituzten **enpresen jokaera ere aintzat hartzeari badagokio**. Hau da, kontua da **kontsumitzen dugun produktuaren ikuspegi integrala** edukitzea, kontuan hartuta produktu eta zerbitzu horien bizi-ziklo osoa: lehengaiak, ekoizpen-prozesuak, lan-eskubideak, enpresa-eredua, merkataritza-eredua, markak, publizitatea, garraioa, bilgarriak, erabilera, hondakinak eta abar. Gure kontsumoari “arduratsu” izenondoa gehitzen diogunean, ondasunen eta zerbitzuen merkatuak eskaintzen dituen aukera askotarikoen artean hautatzeko

1. Ekonomia zirkularra egungo ekoizpen-ereduaren alternatiba bat da (egungo ekoizpen-eredua balio-kate lineal batean oinarritzen da, eta hondakinak eragiten ditu etapa guztietan, lehengaiak erauzten direnetik hondakinak sortzeraino, fabrikatzeko, banatzeko eta kontsumitzeko faseetatik igarota). Alternatiba materialen eta baliabideen bizitza ekonomiko baliagarria ahal den guztia luzatzean datza, hondakinak sortzea minimora murriztuta (Ingurumeneko Goi Mailako Institutua. Jardunaldi tekniko: ekonomia zirkularra. <http://www.ismedioambiente.com/agenda/economia-circular-nuevo-modelo-economico-de-produccion-y-consumo>)

kontsumitzaileak duen garrantzia ikusgai egiten eta horri aipamena egiten ari gara; aintzat hartuta justizia soziala, etika eta elkartasuna, eta ingurumenaren babesa balioesten duten produktuak. **Kontsumitzaileak eragina izan dezake enpresetan eta merkatuan**, kontsumitzean egiten duen aukeran gauzatzen den “botoaren” bidez. Kontsumismoa ez egitea, gutxiago kontsumitzea eta zergatik kontsumitzen dugun hausnartzea, berez, kontsumo arduratsua gauzatzea da.

Hartara, **“kontsumitzaile arduratsu”** esaten diogu, bere kontsumo-ohiturez jakitun izanik, kontsumitzaile gisa dituen eskubideak ezagutu eta exijitzen dituenari eta, gainera, inpaktu negatibo txikiagoa eta gizartean, ingurumenean eta gizatiarrak ez diren animalien eragin positibo handiagoa duten aukerak bilatu eta aukeratzen dituen (edo eskatu edo proposatu egiten diena enpresei).

Horretarako, **erosketa adimenduneko estrategiez** (*smart shopping*) hitz egin behar da, eta haiek barne hartzen dituzte bai kontsumoa (prestazio ekonomikoarekin edo gabe) bai eta merkata arautzen duten egungo arauen egiturazko aldaketa lortzeko helburua ere. Garrantzitsuenen artean hauek daude:

1. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikotik datozen elikagaiak kontsumitzea, produktu ekologikoak, organikoak, biologikoak eta “eko-“ eta “bio-“ aurrizkiak dituztenak, etiketa ekologikokoak.
2. Begetarianismoa eta beganismoa.
3. Bidezko merkataritzako edo merkataritza solidarioko produktuak.
4. Animaliekin (ez gizakiak) testak egiten ez diren produktuak.
5. Uraren eta energiaren kontsumo eraginkorra.
6. Bigarren eskuko dendetako eta tokian tokiko dendetako produktuak.
7. Era jasangarrian kudeatutako basoetatik eratorritako basogintzako produktuak.
8. Hondakinean aztarna ekologikorik sortzen ez duten edo hura murrizten duten produktuak.
9. Inbertsio eta banku-jarduera etikoa.
10. *Simplyfing* delakoa: harreman sozialak merkaturatzea baztertzen du eta kontsumoa eta merkatuarekiko mendekotasuna murrizteko asmoa du. Hori lortzeko, aukera ugari proposatzen du, urrezko hiru arauetan ideia hartzen dutenak (murriztu, berrerabili eta birziklatu) eta bai asoziazionismoan ere (denbora-bankuak, birziklapen-bankuak eta birziklapen-sareen jaiak, kontsumo-taldeak eta ekoherriak...), planetaren iraunkortasuna bermatzen dutenak, bizi-kalitatea hobetzea, eta banakoen eta taldeen beharrak asetzea.

V.4. KONTSUMO-BURUJABETZA

Merkatu perfektu batean, agenteen erabakiek ezartzen dute nola funtzionatu behar duen horrek. Hau da, **egiten dugun kontsumo-motaren arabera, eduki nahi dugun merkatu-mota definitu beharko litzateke**. Hartara, kontsumitzaileek aukeratuko balituzte giza eskubideak betetzen, ingurumena errespetatzen, iraunkortasuna betetzen eta abar egiten duten produktuak, enpresek merkatu-mota horretarantz joko lukete, eskaerak jasoko lituzkete eta eskaintza moldatuko lukete. Egungo merkatuak, ordea, ez du hala funtzionatzen, ez ditu kezka horiek bideratzen, ez da merkatu “perfektua”. Kontsumitzaileek eragina izateko gaitasun hori edukitzea eragozten duten inperfekzioak, nagusiki, bi dira: a) **gardentasun-eza edo informazioa eskura ez izatea** eta, b) **botere-desoreka**.

Lehenbizikoari dagokionez, esan behar da nagusiki *marketinaren* bidez gertatzen dela: interesatzen zaien informazioa eta irudia kontsumitzaileei helarazteko enpresek duten komunikatzaile nagusia da. Horrek ekartzen du ***merkatura iristen den informazioa oso azalekoa eta partziala izatea***. Eta bigarrenari dagokionez, esan behar da botere-asimetriak sortzen direla ***kapitalak*** (agente inbertsoreak, enpresak) ***herritarrei eragiten dieten erabaki politikoetan eragina izateko duen gaitasunean***, informazioa bideratzen duten hedabideetan eta bai beharrak sortzean ere. Adibide bat jartzearen: *inbertsore/estatu diferentzien arbitrajea*, ISDS esaten zaiona. Estatuaren eta nazioarteko merkataritza-itunetan presente dauden atzerriko inbertsioen arteko gatazkei irtenbidea emateko mekanismoa da. Mekanismo horren bidez, multinazionalak salatu egin ditzakete inbertsioak egin dituzten estatuak, beren errentagarritasunei eragiten dieten erabakiak hartzen badituzte estatu horiek. Mekanismo horien aurrean salatzeko mehatxu hutsak herritarren osasuna babesteko estatu-ekimenak geldiaraz ditzake, prozesuaren kostu handia kontuan hartuta.

Hori guztia aintzat hartuta, esan daiteke pertsonen beren lehentasunekin ekonomia gidatzen dutela dioten ***burujabetza-ideia*** hau ***ez dela erabat egiazkoa***, ez eta defendatzeko modukoa ere bere adierazpide guztietan. Lehenik eta behin, lehiakorra, atomizatua, globalizatua eta kontsumo izugarrian oinarritua den mundu batean, trukoa delako pertsonen sinestaztea libreki direla nahi dutena aukeratzeko, betiere eskaintzen zaiena nahi badute. Bigarrenik, gehienentzat ezezagunak eta herritarrentzat urrunak direlako kontsumitzaileen eskubideak, eta denak maila indibidualean pentsatuta idatzita daude: banakoaren segurtasuna, osasuna eta interes ekonomikoak babestea... Eta hirugarrenik, kontsumitzaileen betebeharrak dagokienez, badirudielako betebeharrak bakarra erostera joan eta ordaintzea dela. Oso gutxitan aipatzen da kontsumitzaile orok informazioa edukitzeko duen betebeharra, erosten ari dena ekoizteko egon diren gizarte-eta ingurumen-baldintzak zein izan diren jakiteko.

Hori dela-eta, ***kontsumo arduratsuaren gaineko heziketa funtsezkoa da***, informazio-boterea berdintzeko eta geure buruak eta etorkizuneko kontsumitzaileak baliabidez eta tresnaz hornitzeko tresna gutxietako bat baita.

V.5. KONTSUMOA, PREMIAK ETA ZORIONTASUNA

Badakigu ***zoriontasuna*** kontzeptu erlatiboa dela eta hartan kultura-faktoreek eragin handia dutela. Baina zoriontasunaren gaineko hurbiltze teoriko asko bat datoz onartzean, zoriontasun hori lortu aurreko baldintza moduan, oinarritzeko behar batzuei erantzun behar zaiela. Horrek ekarri du, zenbaitetan, zoriontasuna ongizatea baino estadio globalago eta bai espiritualago moduan ulertzea.

Horregatik, giza beharren gainean soziologiaren eta psikologiaren arlotik egin diren planteamendu desberdinak eskala edo maila batzuk proposatzen joan dira, pertsonen zoriontasunaz hitz egitean jokoan sartzen diren edo zerikusia duten faktore-mota guztiak ahal den heinean estali nahi dituztenak. Horren adibideak dira jarraian agertzen diren hiru gogoetak eta egileak:

- Maslowren *piramide*a (1954): XX. mendearen erdi aldera, beharrak goranzko ordenan jarri zituen, eskala fisiologikotik autorrealizazio-beharreraino. Zenbat eta gorago egon beharra, orduan eta espezifikoki humanoagoa da.
- Doyal eta Gough (1991): premiak *unibertsalizagarriak* direla adierazi zuten, kultura-erlatibismo baten aurrean. Kultura-erlatibismo horrek lehen mailan jartzen ditu kultura-desberdintasunak.

- Manfred Max Neef (1993): oinarritzko bederatzi beharren matrize bat egin zuen, baina hierarkia edo eskalarik gabe. «Irautea», «babesa», «maitasuna», «ulermen» edo «adimena», «parte-hartzea», «sorkuntza», «jolasa» edo «aisia», «identitatea» eta «askatasuna». “Funtsezko giza beharrak gutxi dira, mugatuak eta sailkatzeko modukoak. Funtsezko giza beharrak berak dira kultura guztietan eta aldi historiko guztietan. Denboran eta kulturen zehar aldatzen dena da behar horiek asetzeko erabiltzen diren bitartekoak edo moduak”, argudiatzen du Max Neefek (1993:42).

“Pertsonarengandik ez da inolako premiarik azaleratuko, asebetegarri zehatz baten bidez ordeztzeko asmoa hartzea eragingo duen gabezia-maila nahikorik ez badago”, adierazten du Juan F. Mejia- Giraldo irakasleak (2016). Hartara, **publizitateak beharren larrialdia estimulatzen du, eskaintzen dituen produktuen bidez asetzera bideratzeko**. Horrenbestez, kontsumoan oinarritutako gizartea irits daiteke lehen mailako premiatzat jotzera –bere eraikuntza sozialean aldatuta–, nahiz eta lehen ez zen halakotzat hartzen. Esate baterako, duela urte gutxitik hona sakelako telefonoaren erabilera premia biziko ondasuna izatera igaro da, eta horrek behar soziala eragin du lehen ez zegoen tokian.

Beharraren eta jaiduraren edo joeraren kontzeptuak bereizi behar ditugu, hain zuzen, merkatuaren sistemak beharrak sortzeko joera horrengatik. Lehenbizikoen xedea da zerbaitek edo norbaitek ongi funtzionatzeko edo ongi egoteko gertatu behar den edo egin behar den kontingentzia bat asetzea. Hau da, gure beharrak asetzen ditugu osasuna eduki ahal izateko, gure organismoak ongi funtzionatzeko eta oreka osasungarria, emozionala, psikologikoa eta soziala edukitzeko. Jaidurak nahi edo irrikatzen ditugun gauzak dira, objektu, toki, nahi dugun jarduera baterako joerak, baina ez dutenak inolako beharrik ase behar. **Kontsumoa sortu ahal izateko behar-sentipena sortzen den sistema batean**, kasu gehienetan jaidurak direnak behar gisa sailkatzen bilatzen dute antsietate horri erantzutea. Hori dela-eta, kontsumo-ekintza batekin erantzun nahi diegun **benetako beharrak aztertu behar dira**, benetan halakoak diren identifikatzeko, libreki hartzen ari garen erabaki bat den edo beharrak sortzetik bultzatutakoa den. Izan ere, kontsumo gehiegikeria ari da ekartzen, alde batetik, natura-baliabideak amaitzen joatea, eta, bestetik, pertsonengan zoriontasun faltsuaren sentipena eragitea. Eta sentipen hori antsietate edo larritasun bilakatzen da azkenean, gure barnean sortzen duen nahasmenduarengatik.

Paradigma neoliberalak behin eta berriz esaten digu **lehia hazkundearen gakoa** dela eta gure interesen alde borrokatzeak zoriontsu egingo gaituela. **Ongizatearen gainean egiten diren azterlan desberdinek, ordea, erakusten dute osagai giltzarria dela gizarte-harremanak**, pertsonen sozialki onartuak eta baloratuak izateko duten kezka. Manesek adierazten du (2017) laguntzeak hedonismoak baino gozamen handiagoa ekartzen duela: “Eskuzabala izateak, adibidez, ongizate-sentipena ekartzen du, plazerari eta sariari lotutako neurona-zirkuitu bat aktibatzen baitu, zoriontasunarekin lotutako “kimiko” desberdinak aktibatzeaz gain, hala nola dopamina eta oxitozina. Eskuzabalak diren pertsonen adierazten dute lagun gehiago dituztela, hobeki egiten dutela lo eta hobeki gainditzen dituztela oztupoak, zekenek baino”. Aberastasun ekonomiko handieneko zenbait eremutan suizidio-tasa handiak dituzte, eta datu hori, zalantzarik gabe, bizi-kalitateari eta ongizate pertsonalari lotuta dago.

Nork ez du entzun diruak ez duela zoriontasunik ekartzen? Dena den, nahiz eta sentipen orokorra hori izan, askotan erosteko dugun ahalmenean oinarritzen dugu zoriontasuna, gure kontsumoa eta zoriontasuna ia anaiarteko eran lotuta (World Happiness Report 2019). Hala ere, zoriontsu zerk egiten gaituen aztertzeko egiten diren ikerketetan, kontsumo+zoriontasun batasun horren aurrean, pertsonen galdetzen zaienean, **harremanen kalitatea**, elkarlana, altruismoa eta abar azaleratzen dira zoriontasun handiena ekartzen duten ekintza moduan.

Kontsumoari lotutako zoriontasun-ideia horrez gain, zoriontasun horri lotuta alderdi ekonomiko garrantzitsua duen zerbait **aberastasunaren banaketa** da, polarizazio ekonomikoak (non klase elitista batek aberastasunen zati handi bat pilatzen duen, gehiengoa pobrezian bizi den bitartean) gatazka eta tentsio handiak eragiten baititu gizartean. Hartara, ekonomiari dagokionez berdintasunezkoagoa den eta gizarte-eskubideak berdin partekatzen diren gizarte batek gatazka eta tentsio horietako asko ezabatzen ditu, eta bizi-kalitate handiagoa eskaintzen die herritarrei.

V.6. KOMUNIKAZIOA ETA PUBLIZITATEA

“Egia-osteak edo post-egiak deskribatzen ditu fenomeno zahar bat –propaganda– adierazten den modu berriak. Propaganda egitateei edo gertakariei ez dagozkien “egiak” sortzeko tresna bat izan da beti, baina errepikapen etengabearen edo antzeko mekanismoen arabera gehiengoek baliozkotzat hartzen dituztenak azkenean” (Chomsky, 2016).

Gero eta publizitate eta informazio gehiago jasotzen dugu –egiazkoa eta faltsua–, algoritmo batek erabakitzen duenaren arabera. Aukeratzeko libreak izaten jarraitzen dugu ala gure iritziak “pirateatzen” ari dira? Yuval Noah Harari (2019) historialariak eta, bestea beste, *“Sapiens. De animales a dioses: una breve historia de la humanidad”* liburuaren egileak esango lukeen moduan: *“Garun ‘hackeatuek’ ere botoa ematen dute (...). Planetako buru “bikainenetako?” batzuek urteak daramatzate ikertzen nola pirateatu giza garuna zenbait iragarkitan klik egitea lortzeko eta hala gauzak saltzeko. Metodo onena barnean dugun beldurraren, gorrotoaren eta diruzalekeriaren botoiak sakatzea da. Eta metodo hori orain politikariak eta ideologiak saltzeko erabiltzen hasi da”*. Hala, desirak fabrikatzen, eta haiei erantzuteko gauzak eskura jarrita, haiek lortzea bizitzaren helburua bihurtzen da. Hartara, pertsonak gurpil horretan harrapatuta gelditzen gara, “kontsumitzaile” huts bihurtuta.

Ustezko “sistema perfektua” diada batean, pare batean, oinarritutako gizarte bat litzateke. Pare hori zu eta zure telebista zarete, edo, agian orain, zu eta Internet. Hartara, **toki horretan aurkezten da nolakoa izan beharko lukeen bizimodu “egokiak”** (bikotekidearekin, hipoteka batekin, umeak izanda...), eduki beharko zenituzkeen tresnak (teknologikoak, esate baterako: azken belaunaldiko sakelako telefonoa, tableta, azken markako autoak...), egin beharko zenituzkeen jarduerak edo kirolak, jantzi behar duzun arropa... Gogorarazten dizute zure denbora eta ahalegina behar ez dituzun eta nahi ez dituzun gauza horiek lortzen eman behar duzula, eta, ziur asko, azkenean bota egingo dituzunak. Baina hori da bizimodu “normala” izateko beharrezkoa dena, hau da, normatiboa, sozialki ezarrita dagoen araua betetzen duena.

Telebistako publizitatean ikusten dena adierazle honen bidez uler daiteke: ekonomiari buruzko prestakuntzarik izan baduzu inoiz, badakizu merkatuak oinarritzen direla “informazioa duten pertsonetan, arrazoizko erabakiak hartzen dituztenetan”. Ustezko ezaugarri horiek dituen merkatu-sistema bat izango bagenu, telebistako iragarki batean, adibidez General Motors etxearenean, informazioa hitz hauen bidez emango genuke: *“Hau da saltzeko duguna”*. Baina egiatan hori ez da automobil-iragarki bat dena, auto bat idolo bat balitz bezala, adibidez futbolekoa, saltzen baita. Izan ere, autoa zorakeriaren bat egiten ageri da, esate baterako, mendian gora joaten, abenturak bizitzen edo halako zerbait.

V.7. ZAHARKITZE PROGRAMATUA ETA HAUTEMANDAKOA

Zaharkitze programatua edo **zaharkitze planifikatua** esaten zaio produktu edo zerbitzu baten bizitza erabilgarriaren amaiera eragiteari edo programatzeari. Hartara, produktu edo zerbitzu hori diseinatzeko fasean enpresa fabrikatzaileak alde aurretik kalkulaturako denboraldi baten ondoren, hura zaharkitua bihurtzen da, ez-funtzionala, ezdeusa edo ezin erabilizkoa.

Hitz gutxitan, **premia horren pean egiten diren produktuak epe laburrean nahita hausteko egiten dira, eta konpontzea zaila edo, diru aldetik, ez errentagarria izateko**, eta horrek ekartzen du komenigarria izatea produktu hori bera berria erostea eta “zaharkitua” botatzea.

Zaharkitze hautemandakoa modei esaten zaie. Fabrikatzaileek eta banatzaileek hedabideen bidez manipulaturako joerak dira, **nahiz eta erabilera- eta kontserbatze-egoera ezin hobean egon eskaintzen dituzten produktuak, zaharkitu bihurtzeko xedea** izanda (esate baterako, galtza zango-estuak, kanpai-formako galtzak...).

Aitzitik, ingurumena babesteko helburua duten erakunde batzuek bultzatutako **alargaszentzia** kontzeptua (kontsumo arduratsua sustatzen aritzen diren erakundeak, besteak beste, tierra.org webgunean) objektuak konpontzeko, alokatzeko, trukatzeko eta bigarren eskuko gauzak aurkitu edo saltzeko aukera ematen duten establezimenduen katalogo bat ematean datza. Webgunean, hain zuzen, hau ageri da: “Produktuek gero eta gutxiago irauten dutela eta konpontzen eta berrerabiltzen zailagoak direla jakitun gara. Era berean, badakigu egungo sistemak errealitate hori bultzatzen duela eta uste dugu herritarrak direla kalte handiena hartzen dutenak. Egoera hori, **zaharkitze programatua** esaten zaiona, amaitu egin nahi dugu, elkarlanerako tresna hau abian jarrita” (<https://www.alargascencia.org/es/pagina/%C2%BFqu%C3%A9-es-esto>). Zaharkitzeak **produktuen bizitza baliagarria** laburtzen du, eta, beraz, webgune honek **luzatzeko eta, hartara, baliabide naturalen kontsumoa murrizteko aukerak proposatzen ditu**.

Hondakinen ekoizpen eskergak eta baliabideak zabortegetan eta erraustegietan alferrik galtzeak **urrezko hiru arauak** esaten zaien bidez dute konponbidea: **murriztu, berrerabili eta birziklatzearen** bidez. **Birziklatzea** aukera ezin hobea da produktu batek erabilgarritasuna galdu duenean eta aurretiko aukeretako bakar bat ere aplikatu ezin denean, **murriztea** edo **berrerabiltzeko** prestatzea. Edonola ere, birziklatzea ez da nahikoa baliabide naturalen erabilera murrizteko, kontsumo-eskaerak egungo hazkunde-espiraletan jarraitzen badu. Horrenbestez, hasieratik hastea proposatzen da: murriztetik. Eta iraunkorrak, konpondu daitezkeenak, partekatuak eta komunalak diren ondasunak erabiltzearen alde egitea”.


V.8. AZTARNA EKOLOGIKOA ETA HIDRIKOA

Giza jarduerak naturan duten eragin edo inpaktuaren neurria da **aztarna ekologikoa**, jarduera horren inpaktuak hartzeko eta baliabideak ekoizteko beharrezkoa den azalerak irudikatua. Azalera horrek barne hartzen ditu: laborantzarako, artzaintzarako eta lurzoru urbanizaturako behar den lur produktiboa (edo biogaitasuna); arrantzarako eremuak; eta ozeanoek xurgatu ezin dituzten karbono CO₂ isurpenak xurgatzeko behar den baso-eremua. Bai **biogaitasuna** eta bai **aztarna ekologikoa** ere unitate beraren bidez adierazten dira: hektarea globala (hag).

Aztarna ekologikoak **ingurumen-sistemen eta gizakien arteko behar-erlazioa neurtzen du**, nola erlazionatzen diren elkarrekin, zein den batzuen eta besteen arteko mendekotasuna. Hartara, neurri horrekin, lurraren *biogaitasunaren* atalase biologikoak errespetatzen dituzten kontsumo-praktikak proposatzen dira. Hala eta guztiz ere, ez ditu kontuan hartzen gizakion kontsumoak ingurumenean dituen eragin zuzenak, hala nola kutsadura edo habitatak galtzen joatea.

Neurri-unitate horrek ahalbidetzen digu kontrolatzea planeta ustiatzean egiten ari garen gehiegikeriak gure beharrei eta gabeziei erantzuteko. WWFren “Planeta Vivo 2016: Riesgo y resiliencia en una nueva era” txostenaren arabera.

“XX. mendearen hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, planetak proposatu dezakeena baino gehiago eskatzen dugu gizakiok (grafikoa jarraian). Hartara, 2012an, 1,6 planetaren biogaitasuna behar zen urte horretan gizakiok kontsumitu genituen baliabide naturalak eta zerbitzuak emateko (Global Footprint Network, 2016). Soil-soilik epe laburrean gainditu daiteke oraindik lurraren biogaitasuna. Izan ere, epe labur batean baino ezin izango dira moztu zuhaitzak handitzeko eta heltzeko behar duten denbora baino azkarrago, ozeanoak berriro eman ditzakeen arrainak baino gehiago arrantzatu edo basoek eta ozeanoek xurga dezaketen karbonoa baino gehiago isuri atmosferara. Gehiegikeriaren ondorioak agerikoak dira jada: arrantzalekuen kolapsoa, habitatak eta espezieak desagertzea, eta atmosferan karbonoa metatzea” (Tittensor et al., 2014; Nazio Batuen Ingurumen Programa, 2012).



Kontsumoaren azterna ekologikoaren analisisa

Aztarna ekologikoak parekatzen du gizakiak naturaren gainean duen eskaria baliabidez hornitzeko eta hondakinak hartzeko beharrezkoa den eta biologikoki produktiboa den eremuaren azalarekin (oraingoz, erregai fosilek eragindako karbono-dioxidoa, lurzoruen erabileraren aidaketa eta zementua baino ez). Eskariari sei kategoriatan hartzen dituzte aintzat:



LUR LANDUEN AZTARNA

Gizakion kontsumorako, abereak elikatzeko, olio-landareen laboreetarako eta kautxua ekoizteko elikagaiak eta zuntza ekoizteko beharrezkoa den lurzorua.



ARTZAINITZAKO LURREN AZTARNA

Haragia, esne-elikagaiak, larrua eta artilezko gaiak ekoizteko helburua duten abereak hazteko bazkalekuak.



ARRANTZALEKUEN AZTARNA

Itsasoko uren eta ur kontinentalen ekosistemak, arrainen harropaketei eta akuikulturari eusteko beharrezkoa den urteko lehen mailako ekoizpena (hau da, fitoplanktona).



BASOEN AZTARNA

Erregaiz, zuraren produktuz eta mamiz hornitzeko basoen eskaria.



LURZORU URBANIZATUAREN AZTARNA

Garraioa azpiegiturak, etxebizitzak eta industria-egiturak jasotzeko erabiltzen diren eta biologikoki produktiboak diren eremuak.



KARBONO AZTARNA

Karbonoa bahitzeko behar den basoaren eskaria, kanpo utzita ozeanoak xurgatuko lukeen kantitatea. Karbonoa atzitzeko tasak aldatu egiten dira kudeaketaren eta basoen molen eta adinaren arabera, eta barne hartzen dituzte basoetako suteekin, lurzoruekin eta bihurtako zurarekin lotutako isurpenak. Epe luzean karbonoa bahitzeko erabilgarri ditugun ekosistema nagusitzat jotzen dira basoak (kontsultatu Mancini et al., 2016).

33. grafikoa. Aztarna ekologikoak barne hartzen dituen lurzoruen erabileraren kategoriak.



Biogaitasuna dagoen eremu biologikoki produktiboaren neurri bat da, elikagaien, zuntzen eta zuraren formapean baliabide naturalak birsortzeko eta karbono-dioxidoa bahitzeko gai denarena. Bost kategoriatan hartzen dituzte aintzat: lur landuak, artzaintzako lurrak, arrantzalekuak, basoen lurrak eta lur urbanizatuak. Denek elkarrekin, aztarnaren kategoriatan kontuan hartutako eskariari erantzuten diote. Izan ere, basoen lurrek eskariari bi kategoriatan erantzuten diote: basoko produktuei eta karbono-atxikitzeari (Wackernagel et al., 2014; Mancini et al., 2016). Biogaitasuna aldatu egin daiteke urteko urtera, klimaren, ekosistemaren kudeaketaren, lurzoruen baldintzetan egon daitezkeen aldaketan eta nekazaritzako sargai edo inputen eraginez. Nekazaritzako jardunbide intentsiboak emendatu izana azken bost hamarkadetan Lurrean gertatu den biogaitasunaren hazkunde ia osoaren arduraduna da.

Bai aztarna ekologikoa eta bai biogaitasuna ere egokituak produktibitate-hektarea baten baliokidea den unitate batean adierazten dira, **hektarea global** esaten zaionean (hag). Hektarea global batek, hag batek, munduko batez besteko produktibitateko biologikoki produktiboa den hektarea bat irudikatzen du (Galli, 2015). Benetako lur-eremuak hektarea global bihurtzea errendimendu-faktoreen eta baliokidetasun-faktoreen arabera egiten da. Errendimendu-faktoreak berariazkoak dira herrialde bakoitzerako, eta baliokidetasunekoek mundu-mailako batez besteko bat irudikatzen dute, baina bi balioak aldatu egiten dira urtearen eta luraren erabileraren arabera (Broucke et al., 2013). Hektarea global bihurtzean, produktibitate handieneko eremuak, adibidez, oihan tropikalak, eta produktibitate txikieneko eremuak, adibidez, basamortu alpetarrak, normalizatu egiten dira. Kalkulu horien arabera, 2012an, Lurrean biogaitasun osoa 12.200 milioi hag-ekoa zen edo 1,7 hag-ekoa pertsonako; gizateriaren aztarna ekologikoa, ordea, 20.100 milioi hag-ekoa zen edo 2,8 hag-ekoa pertsonako.

2018ko abuztuaren 1ean, **gizateriak kontsumituta zituen gure planeta hamabi hilabeteetan birsortzeko gai den baliabide naturalak**. Horrek esan nahi du **gure esku eta agindura 1,7 planeta bagenitu bezala bizi garela**, eta, Espainiaren kasuan, 2,4 Lur beharko genituzke gizateria guztia gu bezala bizitzeko.

Energia ekoitzi eta erabiltzea, garraioa, nekazaritza eta abeltzaintza berotegi-efektuko gasen isurpenen arduradun nagusiak dira, eta, era berean, Lurraren temperatura berotzearen arrazoi jatorrizkoetako bat da, **berotze globala** esaten dioguna. 1880 eta 2017 artean, planetaren batez besteko temperatura globala gradu 1 berotu da, eta, ez badira martxan jartzen neurri serioak, litekeena da mendearen amaierarako 3,5 gradu berotzea planetaren temperatura, eta horrek ondorio larriak izango lituzke ingurumenerako, ekonomiarako eta gizarterako, guk bizirik irautea arriskuan jarriko luketenak.

Nazioarteko Komunitateak *klima-aldaketari* eta bere eraginei heltzeko borondatea erakutsi du, **Klima Aldaketari buruzko Parisko Akordioa** (2015eko abendua) esaten zaionaren bidez. Hain zuzen, XXI. mendearen amaierarako gehienez ere Lurraren temperatura 2 gradu berotzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuten herrialdeek hartan, nahiz eta ideala litzatekeen temperatura horrek ez gainditzea 1,5 graduak.

Alde horretatik, badira beste interes-gune batzuk lurraren gaineko ingurumen-presio horrekin lotuta. Horren adibideak hauek dira.

Alde batetik, **elikagaiak alferrik galtzea**. Zehazki, 1.300 tona alferrik galtzen dira urtero, mundu osoan ekoiztako elikagaien %30 eta %40 artean. Elikagaiak alferrik galtze horrek berotegi-efektuko gasen isurpen guztien %8 eragiten ditu urtean.

Beste alde batetik, **abeltzaintzaren sektorea**. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen (FAO) 2006ko txosten baten arabera², abeltzaintzaren sektoreak garraioaren sektoreak baino berotegi-efektuko gas gehiago eragiten ditu –%18, karbono-dioxidoaren baliokidean neurtua (CO₂)–. Gainera, lurra eta baliabide hidrikoak andeatzen joatearen arrazoi nagusietako bat ere bada.

FAO erakundeak 2006an egin zuen beste txosten batean, “Livestock Long Shadow” izenburua duenean, lehenago adierazi denaz gain, abeltzaintzari dagokionez, aintzat hartu beharreko zenbait alderdi ageri dira:

- Abeltzaintzak, airea ez ezik, lurzorua eta lurpeko ur-metakinak ere kutsatzen ditu.
- Giza jardueren ondoriozko CO₂ gasen %9 eragiten ditu abeltzaintzaren sektoreak, baina, gainera, berotegi-efektua duten beste gas batzuen portzentaje askoz ere handiago bat sortzen du: oxido nitrosoaren %65, metano gasaren ekoizpen osoaren %37 eta amoniakoaren %64, eta horrek euria azidotzen laguntzen du. Gas horiek guztiak simaurraren, hondakinen eta animalien hesteetako gasen ondorioak dira.
- Abere-hazkuntzarako, egun, planetaren eremu edo azaleraren %30 erabiltzen da. Nagusiki, larre naturalak dira, baina, gainera, barne hartzen du erein edo landu daitekeen eremuaren %33, zuzenean animaliak –eta zeharka gizakiak– elikatuko dituen aleak ekoizteko baino erabiltzen ez dena. Planetako hainbat tokitan (besteak beste, Amazonian), oihana golda daitekeen lursail bihurtzen ari da, eta, hortaz, abere-hazkuntzak, gainera, basogabetzea ekartzen du. Amazonian, hain zuzen, lurraren %70 abereak elikatzeko belardi bihurtu da.

2. <http://www.fao.org/newsroom/es/news/2006/1000448/index.html>

- Haragi- eta esne-ekoizpena lurreko biomasaren %20 da. Abereak egoteak lursail-eremu handi-handietan eta elikatzeko abere horiek nahi izateak biodibertsitatea galtzea ere ekartzen du: 24 ekosistema garrantzitsutatik 15 larriki kaltetuta daude, eta identifikatu da abeltzaintza izan dela arduradun nagusia.
- Oparotasun handiagoarekin eta mundu osoan mendealdeko balioak hedatzearekin, pertsonok inoiz baino haragi eta esneki gehiago kontsumitzen dugu. Horrenbestez, eskaerak gora egiten jarraitzen du, eta zenbatesten da mundu osoko haragi-ekoizpena 229 milioi tona ingurukoa dela. Egungo kontsumoak erritmo horretan jarraitzen badu, 2050erako kopuru hori bikoiztu egingo da eta 465 tonakoa izango da, eta, esnekien kasuan, 580 tonakoa izatetik 1.043 tonakoa izatera igaroko da denbora-epe berean.

Hori guztia aintzat hartuta, abeltzaintzaren arloan urgentziazko neurriak hartu behar dira ingurumenara isurtzen diren CO₂ gasen kopuruak geldiarazteko. FAOren txostenak zenbait neurri tekniko aholkatzen du, batez ere hainbat ondorio saihesteko, hala nola airea kutsatuta egoteagatik gertatzen diren heriotzak. Izan ere, ezin da alde batera utzi, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera (2008), airearen kutsadurak 7 milioi heriotza goiztiar inguru eragiten dituela urtean, hau da, 800 heriotza orduro edo 13 minuturo. Oro har, beste arrisku-faktore batzuek baino heriotza gehiago ekartzen ditu arazo horrek, adibidez, desnutrizioak, alkohol-kontsumoak eta jarduera-ez fisikoak baino gehiago. Mundu osoan, barneko aire-kutsadurarekin lotutako heriotzen %60 inguru emakumeen eta haurren artean gertatzen dira, eta bost urtetik beherako haurren artean izaten diren pneumoniarengatik heriotza guztien erdiak baino gehiago barneko aire-kutsadurari egotzi ahal zaizkio.

Kontzeptualizazio teorikoaren eta edukien dinamikarekin lotuta aurretik adierazitako guztiarekin, unitate didaktiko honetan garatu beharreko jarduerak daude jarraian.

VI. JARDUERAK

1. SAIOA: IRAUNKORTASUNA

a) Helburua:

Irakunkortasunaren eta *kontsumoaren* kontzeptuen gainean hausnartzea.

b) Garapena:

1. zatia:

Jarduera **hasteko**, **irakasleek** taldeak egingo dituzte **ikasleen artean**, bi ezaugarri hauek aintzat hartuta: lehenbizi, kontuan hartuko da taldekideak gehienez ere 5 izatea (edonola ere, ikasgelan dagoen ikasle-kopuruaren arabera egin beharko dira taldeak); bigarrenik, talde horiek sexuaren arabera ere egitea. Hartara, hauek egongo dira: neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituzten taldeak eta talde mistoak. Sexuan oinarritutako banaketa triangeluar hau proposatzen da, Mercedes Bengoechea (2005) esaten duen moduan, neskek eta mutilek komunikazio-eredu desberdinak dituztelako, eta, eskuarki, mutilena nagusitzen delako. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da espazio txikiak eta erosoak sortzea neskentzat, gainerakoan, gizartean naturalizatutako joera baita mutilen diskurtso hegemonikoaren erreprodukzio hori berriro gailentzea talde mistoetan, nesken iritziak isilarazita.

Horrenbestez, helburua da neskei eta mutilei entzutea, eta bai talde mistoetan esaten dena ere, eta egiaztatzea ea azkenean diskurtsoren bat era orokortuan hartzen den edo ez. Behaketa hori, bere horretan, emaitza bat da.

Taldeak egin eta gero, **irakasleek adieraziko diete ikasleei zenbait txanda egingo direla**. Txanda horietako bakoitzean, kakahueteak banatuko zaizkie ikasleei, txandetako bakoitzerako geroago azalduko den proportzio batean oinarrituta. Jarduera deskribatzeko, kakahueteak proposatzen dira, baina banatu eta jan daitekeen beste edozein gauza izan daiteke (gailetak, krispetak, fruta-atalak edo beste edozein fruitu lehor, adibidez, artoak, pipitak...). Jan daitekeen zerbait izatearen xedea da unean bertan kontsumitu ahal izatea, “desagerrarazteko” modua izatea. Izan ere, behin kakahuete horiek janda, ezin dira berriro erabili, ez baitaude, ezin da desegin edo atzera egin eta, hala, **berriztagarriak ez diren baliabide naturalen ideia hurbiltzen zaie ikasleei**. Kakahueteak, nagusiki, baliabide bisuala dira.

1. txanda. Irakasleak eskukada bat kakahuete banatuko dio talde bakoitzari. Txanda honetan, talde bakoitzari emandako kakahueteak, gutxienez, taldekide-kopuruaren bikoitza edo gehiago izango dira (hartara, talde bakoitzean zazpi kide badira, gutxienez 14 kakahuete emango zaizkie). Esango zaie taldekide bakoitzak egoki jotzen duen kakahuete-kopurua hartuko duela.

2. txanda. Aurreko txandan, kakahueteak banatu gabe gelditu badira, kendu egingo dira, talde guztiek kakahueterik gabe hasi behar baitute txanda, egoera berean egoteko denak. Irakasleak adieraziko die **beste txanda bat hasiko dela, 2.a**, eta bertan, ematen zaizkien kakahueteetatik, bakoitzak egoki jotzen dituenak hartu behar dituela. Oraingo honetan azalduko zaie kakahueteek irudikatzen dituztela gure beharrei edo nahiei erantzuteko erabiltzen ditugun baliabideak, **1. eranskinean (Baliabideen eta kakahueteen arteko haztapenak)** ageri den proportzioaren arabera. Arbelean proiektatuko da eranskina, eta txandak urte bat irudikatuko du. Hau da, txanda batean zenbat kakahuete jaten ditudan aukeratzeak nire beharrei urte batean nola erantzuten diedan irudikatuko du, banatutako haztapenaren arabera. Era berean, **adieraziko zaie beste txanda bat egingo dela gero, 3.a**, eta hartan, jan gabe uzten duten kakahuete-kopuruaren arabera banatuko zaizkiela kakahueteak. Adibidez: 50 kakahuete eman badizkiegu eta, bakoitzak egoki jotzen duena jan eta gero, 10 kakahuete gelditzen badira erdian, hirugarren txandan kopuru hori bera emango diegu, 10 kakahuete, eta, beraz, lehengo hamarrei beste hamarrek gehituta, hirugarren txanda 20 kakahuete dituztela hasiko dute.

Garrantzitsua da ohartaraztea kakahueteak erantzuten ari garen beharrak direla, eta, horrenbestez, ezin dela txanda batean kakahueterik jan gabe egon. Horrek esan nahiko luke oinarritzko beharrak ere ez direla betetzen ari (elikatzea, esate baterako) eta, hortaz, hil egingo lirатеkeela.

Eranskinean, bi aukera proposatzen dira, taldeen artean banatzeko irakasleek dituzten baliabideen/kakahueteen arabera: a) kakahuete gutxi egotea pertsona bakoitzeko edo b) kakahuete asko egotea pertsonako.

3. txanda. Irakasleak eskukada bat kakahuete banatuko dio talde bakoitzari. Oraingoan, aurreko txandan jan gabe gelditu diren kakahueteen kopuru bera emango die. Hortaz, talde bakoitzari ematen zaizkion kakahueteen kopurua ez da bera izango, baizik eta aurreko txandan nola kudeatu dituzten, horren arabera egingo da.

Izan daitezkeen egoerak:

- Gainerakoek baino kakahuete gehiago hartzen dituen pertsona bat dago taldean.
- Taldean dagoen pertsona-kopuruari proportzionala zaion banaketa egiten dute, kakahuete guztiak banatuz.

- Parte-hartzaile bakoitzarentzat gutxieneko kontsumo batzuk aukeratzen dituzte, eta hortik abiatuta, bakoitzak gehiago hartzen du edo ez, bere behar edo nahien arabera. Erdian ez da gelditzen kakahuete nahikorik proportzio bereko banaketa baterako hurrengo txandetan (adibidez, aurreko txandan 50 kakahuete eman bazaizkio 5 laguneko talde bati eta pertsona bakoitzeko 8na banatu badituzte, 40 jan dituzte eta mahai gainean 10 gelditu dira. Txanda honetan $10+10=20$ kakahuete izango dituzte, eta, hortaz, jada ezin dituzte 8na banatu eta jan).
- Gutxieneko kontsumo batzuk aukeratu dituzte parte-hartzaile bakoitzarentzat. Hala, kakahuete nahikoak gelditzen dira mahai erdian, eta proportzio bereko banaketa egin daiteke hurrengo txandetan.
- Gainerakoek baino kakahuete gehiago jatea erabakitzen duen pertsonaren bat dago, bere kasa erabakitzen duena, desagertu aurretik.
- Gatazkak sortzen dira taldekideen artean, nork hartu behar duen gehiago edo gutxiago erabakitzean.
- Beste batzuk...

Piloak taldeetan nola banatzen doazen kontuan hartuta, txanda gehiago egin daiteke, egoera desberdinak sortzen joatea behartzeko, gero hausnarketan horretaz hitz egin ahal izateko.

Hausnarketarako gida:

Kakahueteak planetan ditugun baliabide naturalak dira. Hartzen ditugun kakahueteak gure beharrei erantzuteko egiten dugun kontsumoa da. Ez badugu ziurtatzen kakahueteak gelditzen direla txanda batetik bestera, txanda pare baten buruan ez dago kakahuete nahikorik taldekide guztien artean banatzeko eta baten batek gabe gelditu behar du. Hori da, hain zuzen, **iraunkortasunaren** kontzeptua: “oraingo beharrak bermatzea etorkizunekoak arriskuan jarri gabe”. Egun, urtean, planetako baliabideak 1,7 aldiz kontsumitzen ditugu. Hau da, txanda bakoitzean beharko genukeena baino kakahueteen %70 gehiago ari gara kontsumitzen. Kalkulatzen denaren arabera, 2050erako bi planeta beharko ditugu (Planeta Vivo 2016 txostena), egungo kontsumoaren mailari eusteko, ordurako jada ez badugu dena ahitu (ez baita kakahueterik egongo txandetan banatzeko). Adibidez, baso batek 10 urte behar ditu hazteko. Baso horren erdia orain mozten badugu, eta beste erdia 10 urte barru, hazteko denbora emango diogu. Baliabide naturalak era iraunkorrean erabiltzen ariko gara, ahitu gabe. Basoaren laurdena bi urtetik behin mozten badugu, ordea, zortzigarren urterako dena moztuta egongo da, eta moztu genuen lehen zatiak oraindik ez zuen denbora izango nahikoa hazteko. 2. *eranskin*eko infografiak (*Zenbat mundu beharko genituzkeen gure kontsumoari eusteko*) erabil daitezke laguntzeko.

Gogoeta egiten jarraitzeko, **prozesua nolako izan den** galdetu ahal da: nola hartu dira banaketak egiteko erabakiak? Baten bat burua izan da? Zer desberdintasun egon da kakahueteen banaketan txanda desberdinetan? Taldekide guztiek kopuru bera jaso dute beti? Banatzeko kakahueterik gabe gelditu dira edo denentzako kakahuete nahikorik gabe? Zer egin dute hori konpontzeko? Halakorik gertatu bada, urarengatik edo petrolioarengatik gertatzen diren gerrei egin dakieke aipamena. Ikusten al dugu konexiorik haien eta eskas diren baliabide naturalen kontrolaren artean? Eta gure kontsumoaren eta **iraunkortasunaren** kontzeptuaren arteko konexioa?

2. zatia: *Zati hau egingo da taldea ez bada oso parte hartzekoa edo kakahueteen jarduera oso azkar egin bada. Bestela, lehen zatia nahikoa izango litzateke programatutako 50 minutuetarako.*

Jarraian, janari azkarreko hanburgesa bat eta tokiko eta sasoiko produktuak dituen entsalada bat jateko beharko genituzkeen “kakahueteen” alderaketa bat egingo da. Hasteko, azalduko da lehen zatian ikusi dugula kontsumo-aukera bakoitza kakahuete-kantitate desberdin bati zegokiola, eta hori hala dela **kontsumo-aukera guztiek, kontsumitzen ditugun produktu guztiek, ez dituztelako prozesu berberak eskatzen eta ez dakartelako berekin baliabide natural berberen erabilera**. Horretarako, irakasleek “entsalada” eta “hanburgesa” hitzak idatziko dituzte arbelean, eta bakoitza zutabe baten burua izango da. **Idea-jasa** moduan, ikasleak osagaiak eta baliabideak esaten joango dira, produktu horietako bakoitza jateko behar ditugunak, eta irakaslea arbelean idazten joango da. **3. eranskinean** (*Nire kontsumoa aletzen*), idea-jasak izan beharko lukeenari buruz garatutako adibideak daude, ikasleek laguntza behar badute edo irakasleek osatu nahi badute ikasleak esaten joan direna erabiltzeko.

Gero, bi zutabeak alderatu egingo dira eta **4. eranskinean** (*Aztarna ekologikoaren infografiak dieten arabera*) **dauden dieta-mota desberdinen aztarna ekologikoaren infografiak emango dira**. Alderaketa horren emaitzei buruzko gogoeta egingo da. Taldearen parte-hartzearen arabera, antzeko xehatzea egin daiteke, elastiko eta sakelako telefono baterako.

Hausnarketarako gida:

Kontuan hartzen al dugu egiten dugun kontsumo-motak ingurumenean duen eragina, kontsumitzen dugun produktu-motak? Zein abantaila ditu barazkiak nagusi dituen dieta batek oinarrian haragia duen baten aurrean? Pentsatzen al dut zerbait erosi aurretik benetan behar dudana? Edo pentsatzen al dut fabrikatzeak duen prozesuan?

3. zatia:

“**La Historia de las Cosas**” bideoa eman 4’54” minutua arte (esan daiteke bideoa 2009koa eta AEBetako dela, baina ezin hobeto estrapolatu ahal dela gaurko egunerara eta hona) – **Baliabide naturalak ustiatzeko eta ekoizteko sistema**.

Hausnarketarako gida:

Ikusten al dugu egin ditugun jardueren eta bideoan kontatzen denaren arteko erlazioa? Bideoan, “kakahueteen” hitz egiten du, zer esaten du? Ikusi al duzue inoiz fabrika bat? Edo ikusi al duzue inoiz nola fabrikatzen den lehenago erosi duzuen zerbait? Garrantzitsua iruditzen al zaizue erosten ditugun gauzak nola egiten diren jakitea edo, oster, informazio horrek interesik ez duela iruditzen zaizue? Zergatik gutako askok ez dakigu edo, are gehiago, ez zaigu batere interesatzen?

c) Materialak:

- Kakahueteak edo jan daitekeen beste edozer (gailetak, krispetak edo beste fruitu lehor batzuk)
- 4. *eranskina*. Gogoetarako
- Proiektorea, ordenagailua eta bozgorailuak
- Arbela, errotuladorea eta/edo klariona

d) Denbora:

1. zatia:

Jardueraren aurkezpena, kakahueteak banatzea, izendatzeak eta txandak (20-30'). Gogoeta (10')

2. zatia:

Idea-jasa, produktuen xehatzea eta gogoeta (+ 15-25')

3. zatia:

“La Historia de las Cosas” bideoaren zati bat ikustea (5-10')

2. SAIOA: IDENTITATEA ETA BEHARRAK I

a) Helburua:

Kontsumoa sortzeko sistemak dituen tresnak identifikatzea eta haien eragina gure erabakietan.

b) Garapena:

Ikasleak taldetan banatuko dira, lehenago adierazi diren irizpideei jarraituta (kopuru mugatua, 5 baino gutxiago ahal bada, eta sexua).

Irakasleak 5. eranskineko (Tele-dendako iragarkiak) irudi bat emango dio talde bakoitzari, eta taldeek prestatu egin beharko dute nola saldu egokitu zaien produktua. 5. eranskinean bost produktu daude aurretik aukeratuta, baina gehiago behar badira edo aldatu egin nahi badira, lotura edo esteka dago, proposamen gehiago eskuratu ahal izateko. Taldeek bost minutu izango dituzte iragarkia prestatzeko, eta, gero, minutu bat, saltzeko proposamena aurkezteko. Publizitate-formatu hau oso zuzena eta laburra izaten da beti. Denbora gutxi ematearen helburua da iragarkiak senezko eran sortzea da, instintiboki, hartara, ziur asko, telebistako “benetako” iragarkien estrategia berak erabiltzeko.

Egin behar duten zeregina azaltzen dutenean irakasleek, talde bakoitzetik boluntario bat eskatuko dute. Bereiz egonda, esango zaie beren produktuak saltzeko iragarkietan **taldeek baliatzen dituzten estrategiei behatzeko** eginkizuna izango dutela. Orientazio moduan, adieraz daitezke eta/edo banatu jarraian dagoen **1. taula** honetako edukiak, edo intereseak izan daitezkeen beste alderdi batzuk, besteak beste, arreta jartzea hitz egiteko erabiltzen duten abiaduran, prezioak nola definitzen dituzten, ahotsaren tonuan, produktuen gainean ematen duten informazioa eta abarretan. Borondatezko “behatzaile” guztiek talde guztien iragarkiak aztertuko dituzte, erakusten dituztenean.

1. taula. Produktuak saltzeko estrategia gakoak (5. eranskinean ere badago, kopiak egin ahal izateko)

Ez ematea produktuaren ezaugarri guztiak	“Zein da pastillen konposizio kimikoa hirugihar-zaporea izateko? Osasunerako onak dira? Zein dira baldintzak produktuak hain gutxi balio izateko?”
Produktuaren ezaugarriak puztu edo esajeratzea	“Angurria ia bakarrik joango da nahi duzun tokira”
Pertsonen sentimenetara iristen saiatzea, erosteko	<i>“Ergela sentitzen al zara bainugelako hormari begira?”</i>
Beharra sortzea	“Inoiz gehiago ez duzu istripurik izango festa batean xanpainarekin!”
Urgentzia sortzea	“Lehenbiziko 100 deiek baino ez dute lortuko...”
Hitz egiteko erabiltzen duten abiadura, ahotsaren tonua...	“Hemen ditugu produktu hauek...” (erabat azkar eta modu berritsuan)
Nola definitzen dituzten prezioak	“Produktu honetan inbertitzen duzun dirua ezin gutxiago da, izan ere...”

Iturria: guk geuk egina

Iragarkia taldean landuko da, eta bost minutuak igarotakoan, ikasgelaren erdira taldekide bat edo bi baino ez dira aterako talde bakoitzeko (gehiago ateraz gero, antzerki-emanaldiaren antzekoa izan daiteke eta formatua galdu).

Iragarki bakoitza amaitutakoan, irakasleak ikasleei galdetuko die: nork erosiko lukeen produktu hori (erosiko luketenek eskua altxatu behar dute). Produktuak nahiko barregarriak dira eta giro dibertigarria eratzen dute, ez oso serioa. Hori dela-eta, irakasleak “enkante baten ukitua” erabil dezake, produktu horiek izan ditzaketen bezeroei galdezka aritzeko.

Iragarki guztiak erakutsi dituztenean, beren produktuak saltzeko **taldeek erabili dituzten estrategiez ariko dira behatzen aritu diren pertsonak** (interesgarrienak, zein erabili dituzten eta zein ez, eta abar).

Hausnarketarako gida:

Litekeena da taldekideetako bakar bat ere ez aritu izana marketinean eta publizitatean lan egiten edo hori ikasten, baina egunez egun **telebistan eta beste hedabide batzuetan produktuak saltzeko ikusten ditugun tresna berak erabili dituzte?** Produktuen gaineko informazio guztia eman dute, eros ditzaketen pertsonak ezaugarri guztien berri izateko eta bai “produktu horien atzean dagoen guztiaren” berri ere (fabrikatzearen ondorioak, adibidez, edo osasunerakoak edo langileen pobretzea edo...)? **Emozioak edo sentimenak erabiltzen saiatu dira**, produktuak saltzeko? Uneren batean produktu horiekin erantzun beharreko benetako beharrak aintzat hartu dira?

Horretan pentsatu dute arretaz? **Presaren eta urgentziaren baliabidea erabili dute** produktuak saltzeko, bezero izan daitezkeen pertsonen denbora har ez dezaten produktua behar duten edo ez pentsatzeko?

Gero, eroslearen aldera igaroko da. Nork zer erosi du? Zergatik erabaki dute erosi nahi zutela? Benetan baliagarriak izango dira haientzat? Behar dituzte? Zerk bultzatu ditu erostera?

“Binta y la gran idea” film laburraren sarrera jarriko dugu, 1’44” eta 3’40” minutuen artean, eta hartaz hitz egingo dugu.

Hausnarketarako gida:

Metafora-moduan galdetuko dugu ikasgelako norbaitek “erloju suitzarra” erosi duen edo erosi duen norbait ezagutzen dugun. Hau da, zerbait erosi duten izenarengatik, markarengatik, denarengatik edo irudikatzen duenarengatik, nahiz eta gero ez erabili. Esate baterako: Nike markako zapatilak erosi, Altus motxila, iPhone telefonoaren azken modeloa 700 € ordainduta, WhatsApp eta Twitter erabiltzeko. Benetan behar al dut ezaugarri horiek dituen produktu bat (sakelakoaren kasuan, gama horretako bat, erabiliko ez ditudan ezaugarri batzuekin)? **Behar dudalako ala irudikatzen duenarengatik erosten dut?** Burua erabilita erosten dugu? **Zerbait komunikatu nahi dugu erosten ditugun gauzekin**, eramaten ditugun markekin, daukagunarekin?

Saioa amaitzeko, **“La Historia de las Cosas”** bideoa jarriko dugu, 10’12” eta 12’40” minutuen artean – **Kontsumoaren gezia: gure balioa gizaki moduan.**

c) Materiala:

- 5.1 *eranskina* – Produktu inprimatuak, taldeka saltzeko.
- 5.2 *eranskina*. Produktuak saltzeko estrategia gakoaren taula, ikasle boluntario “behatzaileentzat”.
- Proiektorea/ordenagailua/bozgorailuak

d) Denbora:

- Taldeak eratzea, materiala banatzea eta ikasle boluntario “behatzaileak” prestatzea: 8’
- Iragarkiak prestatzea, 10’
- Iragarkiak erakustea, 15’
- Bideoak eta gogoetak, 17’

3. SAIOA: IDENTITATEA ETA BEHARRAK II

a) Helburua:

Kontsumo-ereduak pertsonen *identitatean* eta *zoriontasunean* duen eraginaren gainean hausnartzea.

b) Garapena:

1. zatia:

Gizaki guztiok batera ditugun ezaugarrietako bat da behar batzuk ditugula eta behar horiei erantzutearen mende dagoela zati handi batean gure zoriontasuna. Nahiz eta ez dagoen **beharrak zer diren** eta haien kategorizazioa zein den adierazten duen definizio adosturik, gizarteen, une historikoaren eta abarren arabera baita, badago adostasuna pertsona guztientzat oinarritzat jotzen diren beharren gainean, edozein kultura eta garaitakoak izan. Eta bai behar horiei erantzuteak nola duen eragin handia zoriontasunaren gainean dugun pertzepzioan. Horregatik guztiagatik giltzarri jotzen da aztertzea **nola erantzuten diegun behar horiei**. Horretarako, **ikasleak taldeka banatuko dira**, lehenago finkatutako irizpideei jarraituta (kopuru mugatua, bostetik beherakoa, eta sexua kontuan hartzea, neskak, mutilak eta talde mistoak eginez), eta **irakasleak** talde bakoitzari **banatuko dizkio**:

1. 6.1 eranskineko (*Publizitatea eta beharrak*) **irudi guztien kopia bat** (aurretik moztu egingo dira).

2. 6.2 eranskineko (*Publizitatea eta beharrak, taula*) **taula**, A3 tamainan inprimatuta.

Talde bakoitzak material horiekin egin beharreko zeregina izango da **irudi bakoitza** (6.1 eranskina) **era adostuan kokatzea** helburu horretarako taulan (6.2 eranskina), ondasuna edo zerbitzua **erantzuten ari den beharra** kontuan hartuta.

Eranskinean, erabiltzeko irudien adibide bat ematen da, baina interesgarria da jardueran ematen direnak eranskinean jasotakoan artean hautatzea edo berriak erabiltzea, interesgarritzat jotzen bada, ikasleekin konexioa izateko, egungoak eta jarduera egingo den testuingurura egokituak izateko. Hartara, ikasleek erraz identifikatuko dituzte eta beren kontsumo-erabakietan islatuta ikusi ahal izango dira.

Pertsonak beren **kontsumo**-mota zalantzan ez jartzeko zailtasun nagusietako bat da kontsumo hori **oso lotuta egotea 'zoriontasunari'** edo, hobeki esanda, gizartearen dagoen zoriontasun-ideiari, gizartearen zalantzan jartzea oso zaila den horri. **Ariketa hau eginda lortu nahi da behar horiei nola erantzuten diegun gogoeta egitea: pseudosatisfaktore** esaten zaien bidez egiten dugun, eta modu materialean kontsumoarekin; edo, oster, badakigun ezagutzen eta modu "osasuntsuan" erantzutera eramaten duten giza satisfaktoreak bilatzen. Kontsumitu gabe nola erantzuten diegun erakusten digun adibideren bat bila dezakegu?

Hori guztia egiteko, hausnarketa sakona egingo da, hauek aztertzeko: alde batetik, **nola erantzuten diegun benetan gure beharrei** –esparru-eztabaida, eta horretarako *Ecologistas en acción* erakundearen 2017ko azaroko "Felicidad y Sociedad de consumo" txosteneko *Pseudosatisfaktoreak* atala (6.3 eranskina) erabiliko da–; eta bestetik, ondoren, **berariazko hausnarketa egiteko, jardueran landu den behar bakoitzeko** eta jarraian garatzen dena, luze, horretarako.

Hausnarketarako gida:

Hausnarketa bideratzeko, material hauek erabil ditzakegu:

Lehena **6.3 eranskineko kartela (*Pseudosatisfaktoreak*)**, *Ecologistas en acción* erakundearena (2017). Hartaz hitz egiten den bitartean, ikasle guztientzat proiektatu ahal da.

Bigarrena **beharren argibide-zerrenda** hau. Jardueran landutakoak dira eta interesekoak izan daitezkeen galderak dituzte, elkarrekin hausnartzeko bidea emateko.

- **Bizirik irautea**. Erabakia elikatzea bada, kontuan hartzen al ditut produktuaren balio nutritiboak, osasungarria den, eduki dezakeen azukre-kantitatea, nola egin den eta

abar? Hori al da erantzuten edo betetzen ari naizen beharra? Arropa eta oinetakoak jantzi behar baditut, nire larruazalari kalterik egiten ez dion material bat bilatzen dut, neguan berotzen nauena eta udan izerditzeko aukera ematen didana, eroso dena...? Horretan jartzen dut arreta ala beste gauza batzuetan? Hala bada, zertan jartzen dut arreta?

- **Babesa eta segurtasuna.** Batzuetan, behar honetan, subjektuan nahastu egiten dira, eta, beraz, beharbada, zentzu honetan, galdera gakoa hau izango da: nor ari gara babesten eta zertatik? Senti dezakegun beldurra benetako arrisku batean oinarritutako izua da edo ez? Nondik datozkit beldur hauek? Non ikusten dira edo non agertzen dira?
- **Maitasuna.** Gainerako pertsonak, senitartekoak, lagunak eta abar maitatzea eta haiek gu maitatzea. Nola erakusten dugu maitasun hori? Nola eskatzen dugu? Beharrei pseudosatisfaktoreekin erantzuten diegunean, egiatan ez erantzuteko arriskua izaten dugu eta horrek sentipen deserosoa uzten digu, kudeatzen zaila, tristura, samintasuna... Badakit nola erantzuten diodan nire maitasun-beharrari? Erantzutea lortzen dut? Badakit benetan maite ditudan pertsonen nire maitasuna iristen zaien edo “bidean gelditzen den”, adibidez, opariren batean?
- **Elkar ulertzea.** Animalia sozialak garenez, gainerako pertsonak behar ditugu bizitzeko, harremanak izateko, elkar ulertzeko, babesteko eta abarretarako. Hau da, komunitatea behar dugu garatzeko, eta, hortaz, komunitate hori hausten denean, pertsonak mundu individualista batean bizi garenean, beste pertsona batzuek gu babesteko eta elkar ulertzeko behar hori ahal dugun tokian bilatzen dugu, estrategia desberdinak erabilita. Noizbait telesailen bat ikusten hasi zara elkarriketetan parte hartu ahal izateko? Modu jakinen batean jantzi zara edo gauza batzuk erosi dituzu, adiskide-taldean onar zaitzaten? Pentsatzen ari zinen isildu duzu, esaten ari zenarekin ados ez bazeunden ere, zure taldeko edo ikasgelako ezagunenak zurearen aurkakoa zen ideia baten alde egiten ari zirelako?
- **Sormena.** Beharbada haurtzaroan da agerikoagoa behar hau. Eta hala da pixkana ahazten edo galtzen joaten garelako sozializazio-prozesuan; izan ere, sozialki ez baitzaio baliorik ematen. Horren aurrean, burura datorkigun lehen esaldia hau da: “Ez dakit, ezin dut, ez zait bururatzen...”. Sormena praktikatu egin behar den zerbait da, eta, beraz, ez badugu inoiz erabiltzen, zaila da abilezia izatea inplementatzean. Beti erduei jarraitzen badiegu, adibideei, arrastoei, bideei, kopiatu egiten badugu, ez gara tokia ematen ari gure sortzeko ahalmenari. Ematen al diozu zure buruari sortzeko eta irudimena askatzeko tokirik? Zure sormena garatzen laguntzen dizun jardueraren bat dago? Zein, zeintzuk? Zein izan da sormenezko zerbait edo jardueraren bat egin duzun azkeneko aldia?
- **Aisia.** Zer gustatzen zaizu egitea denbora librean duzunean? Zerk dibertitzen zaitu, zer egiten duzu ongi pasatzeko? Gogoko duzun hori kontsumoari baldintzatuta dago? Aipatu dituzuen jarduera horietatik guztietatik zenbat dira doakoak, zenbatek ez du dirurik behar egiteko eta zenbatek bai? Lehenago ikusi dugun moduan gure sormena gero eta mugatuago badago eta, gainera, etengabe jasotzen baditugu kontsumitzeko mezuak, pertsona askok ez dakigu zer egin gure denborarekin, ez bada kontsumoaren bidez. Jakitun al zara kontsumo-aisia horrek zuretzat eta zure ingurukoentzat dituen ondorioez? Jar ditzakezu adibideak? Une ona izan daiteke joko-aretoez, alkoholaz, drogez eta abarrez hitz egiteko.
- **Identitatea.** Gure identitatea eraikitze prozesua, gure nortasuna, nor garen, zer ez garen, zer nahi dugun bizitzan... pertsonok egin behar dugun prozesu zailenetako bat da. Nor garen eta nola eraikitzen dugun gure identitatea, horrek baldintzatu egingo du munduarekin harremana izateko dugun modua, eta horrek, era berean, eragina izango du gure buruarekin harremana izateko modua. Geure burua eraikitze, autoezagutza

(nor garen jakitea eta geure burua ezagutzea) eta buruestimua dugu (bakoitzari bere burua gustatzea, atsegin izatea nor garen), eta biak barnetik egiten den begirada batean oinarrituta daude. Hala eta guztiz ere, sozialki, egiten duguna da geure burua kanpotik iristen zaigunetik eraikitzea, gainerakoek guregandik espero dutenetik, esaten digutenetik... Jarrera horretatik (kanpoko onarpenaren zain egotea) zaila da nortasun egonkorra eta sendoa eraikitzea, osorik eta zoriontsu garatzeko bidea emango diguna, eta, batik bat, gure ahalmen guztia garatzea, bakana eta oso baliotsua dena. Hausnartzea eragin diezagukeen zerbait: marka batean oinarritu nahi dut nire identitatea? Marka zuri bat eramaten badut, ez naiz hain “ni”? Ergela al naiz hemen ez erosteagatik, denda honetan? Modu honetan janzteak neure buruarekin harreman hobea izatea ekartzen dit edo nire iritzia isiltzeak hazten laguntzen dit edo barnetik ongi sentitzea ekartzen dit?

- **Nor bere burua bidebetetzea/zoriontasuna.** “Diruak zoriontasuna ematen du” vs “Diruak ez du zoriontasuna ematen, baina asko laguntzen du”. Hori egia dela uste duzue? Ikerketa askok frogatu dute pertsonen zoriontasun handiena ematen diena gizarte-harremanak direla eta harreman horien kalitatea. Gogoan al duzu nola sentitu zinen eskuzabaltasunez norbaitengatik zerbait egin zenuen azken aldian? Gizakien arteko elkarlanak ekarri dio giza espezieari irautea eta bilakaera izatea orain gauden aroraino. Baina indibidualismoak, lehiak eta sistema kapitalistaren globalizazioak pertsonen eta komunitateen arteko, elkarlaneko eta gure inguruneko (glokalak) truke horiek urratzen dituzte, ustez “oinarrizkoak” diren hainbat behar sortuz, sistema ekonomiko horrek eskaintzen dizkigun ondasun eta zerbitzuen bidez erantzuten zaienak, hala zoriontsuak izango garela dioen gezurrezko ideia oinarri hartuta.

c) Materiala:

- 6.1 *eranskina*. Irudiak moztuta
- Itsasgarria/zeloa
- 6.2 *eranskina*, A3 tamainan inprimatuta, talde bakoitzari banatzeko
- 6.3 *eranskina*, hausnarketarako
- Arkatzak
- Proiektorea/ordenagailua/bozgorailuak

d) Denbora:

1. zatia:
 - Iragarkien sailkapena, 25'
 - Gogoeta, 25'
2. zatia:
 - Identitatearen eta zoriontasunaren zerrenda, 20'
 - Gogoeta, 20'
 - Bideoa ikustea, 4'
 - Amaiera, 6'

4. SAIOA: IDENTITATEA ETA BEHARRAK III

a) Helburua:

Aurreko saioan *maila “makroan”* (egiturazkoa, kanpoko) *landutako kontzeptuak eta ideiak* (kontsumoa, identitatea eta zoriontasuna) *maila “mikroarekin”* konektatzea, hau da, *bakoitzaren erantzun “pertsonalarekin”*.

b) Garapena:

Behin jorratu denean “kanpotik iristen dena”, garrantzitsua da lantzea “zer dugun barnean”. Badakigu publizitatea, bere etengabeko iragarkien bidez, gure erabakietan eragina izaten doala, baina baita geure burua ikusteko dugun moduan, harremanak izateko ditugun moduan, adierazteko dugun moduan...

Geure buruarekin berriro konektatzeko helburua izanda, **ikasle bakoitzari 7. eranskineko orria banatuko zaio (Barnean begiratzen)**. Bi zatitan banatuta dago: alde batean, identifikatzen dituzten gauzak bilduko dituzte, beren zati direla sentitzen duten beren bizitzako alderdiak; eta beste aldean, zoriotsu egiten dituzten gauzak, irribarrea eragiten dietenak, ongi sentitzea, pozik egotea, lasaitasuna eta harmonia eragiten dietenak...

Galdetu ahal da inork taldearen aurrean adierazi nahi dituen, baina nagusiki jarduera pertsonala da. Bukatu dutenean, galdetu behar zaie ea zerrendetan idatzi dituzten gauza horietatik zenbatek duten "etiketa edo barra-kodea", **eta gogoeta egingo da identifikatzen garen pertsonekin edo taldeekin nola izaten ditugun harremanak, horren gainean.** Nola bilatzen dut zoriontasuna eta nola saiatzen naiz nire ingurukoak zoriotsu egiten? Gainerakoengana gauza materialen bidez iristen saiatzen naiz? Nola “saltzen dut neure burua”? Nola “erosten ditut gainerakoak”? Gure zoriontasuna nagusiki hauen mende dagoela dioen ideia sendotuko dugu: geure buruarekin dugun harremanaren eta inguruarekin dugun harremanen mende (gainerako pertsonak, natura...). Jada badakigun zerbait da eta egunero bizi dugu, baina ez da hain erraza ikustea edo bere garrantzia nabarmentzea.

Saioa amaitzeko, **“La Historia de las Cosas”** bideoa emango dugu, 15’06” eta 16’48” minutuen artean – **Zoriontasuna eta kontsumoa**.

c) Materiala:

- 7. eranskina. Inprimakia ikasle bakoitzarentzat
- Arkatzak, 7. eranskina betetzeko

d) Denbora:

- Identitatearen eta zoriontasunaren zerrenda, 20’
- Gogoeta, 20’
- Bideoa ikustea, 4’
- Amaiera, 6’

5. SAIOA: ZAHARKITZEA

a) Helburua:

Zaharkitzearen fenomenoaren ezagutzea eta **iraunkortasunarekin** duen **bateraezintasuna**.

b) Garapena:

1. zatia:

Gogora ekarri aurreko saioak eta, batez ere, **iraunkortasunaren** ideia –“egungo beharrei erantzutea etorkizunekoak arriskuan jarri gabe”– eta **“kontsumitzea kontsumitzeagatik”** ideia –kontuan hartu gabe baliabideak mugatuak direla eta egun ditugun kontsumo-ohiturak gauzak ekoizteko erabiltzen ditugun natura-baliabideak

lehengoratzeko planetak duen ahalmena baino handiagoak direla-. *Eta zerk eramaten gaitu duguna baino gehiago kontsumitzera?*

“La Historia de las Cosas” bideoa emango dugu, 12’40” eta 15’05” minutuen artean – **Zaharkitzearen kontzeptua. Hori da, hain zuzen, sistemak dituen estrategietako bat kontsumoa sortzeko.**

Idea-jasa bat egingo da bideoaz zer ulertu duten ikusteko. Beren erosketak erabakietan islatuta ikusten duten, beren ingurunean, esan beharko dute, inoiz gertatu zaien zer bait konpontzeko aukerarik ez izan eta berria erosi behar izatea...

2. zatia:

Irakasleak 8. eranskineko fitxa (**Kontsumo-ohituren bingoa**) banatuko die ikasleei. Gero, azalduko die ikasleei fitxa horretan ageri diren esaldietatik sei aukeratu behar dituztela, beren kontsumo-ohiturei gehien egokitzen zaizkienak, eta behin aukeratu dituztenean dagokien taulan kokatu beharko dituztela. Bestela esanda, parte-hartzaile bakoitzak aukeratuko ditu laukietan jarriko dituen esaldiak, bere kontsumo-ohiturekin bat datozen edo ez kontuan izanda.

Jarraian, bingoa kantatuko da. *“Irakasleen fitxa”* ageri den ordenan irakurriko ditu esaldiak irakasleak, eta irakasleak esaten dituen esaldiak bere taulan badaude ikaslea marratzen joango da. Taulako esaldi guztiak marratuta dituenean ikasle batek, **“BINGO”** esan beharko du ozenki. Lehen sei esaldiak kontsumo arduratsuko ohitura onak dira; hurrengo seiak ez, ordea. Kontsumo arduratsuko jardunbide egokiak gauzatzen dituen inor badago gelan, bingoa lortuko duen lehena izango da.

Hausnarketarako gida:

Egindako arropa eta oinetakoak alferrik galtzea dela-eta, kalkulatu da urtean 16.000 tona inguru direla³; Europar Batasuneko **hondakin toxikoen** 352 tona inguru garapenean dauden herrialdeetara iristen dira (BAN, Holes in the Circular Economy, 2018); 1.300 milioi tona janari alferrik galtzen dira urtean⁴; Amazon etxeak 3 milioi produktu berri botatzen ditu urtean⁵. Industrietan egiten diren gainerako produktuak eta **gehiegizko ekoizpenarengatik** edo **estandarrek ez dituztelako betetzen** botatzen ez direnak pertsonok kontsumitzen ditugu. Egun, aldatzen ari da gehiegizko ekoizpen eta bultzatzen ari garen eta partaide garen **gehiegizko kontsumo** horren gaineko pentsamoldea, eta giltzarria da ikaskuntza, sentsibilizazio eta kontzientzia-hartze horren zati izatea, prozesu eraldatzailea gauzatu ahal izateko.

Inork esan al du “bingo” lehen sei esaldiekin? Zortzigarrenean? Ba al da azken esaldietan bakarrik bat etorri den inor? Gure kontsumo-ohituren jakitun al ginen? Ba al genekien hauek bezalako ohitura errazak daudela kontsumo iraunkorragoa izateko? Presak, erosotasunak, publizitateak, gizarteak, oro har, iraunkorrak ez diren kontsumo-erabaki asko hartzera eramaten gaituzte askotan. Baina ikusi ditugun ohitura hauek gauzatzen zailak direla iruditzen zaizue? Zuen ustez, zer da handiagoa: kontsumo arduratsua egiteko ahalegina ala errespetuzkoa ez den kontsumo batek izan ditzakeen ondorioak?

3. https://www.lasexta.com/noticias/ciencia-tecnologia/luchar-fast-fashion-como-evitar-que-tiren-basura-mas-16000-tonelas-ropa-ano_201907305d41a6010cf28aa877751e79.html

4. <http://www.fao.org/food-loss-and-food-waste/es/>

5. https://www.elconfidencial.com/tecnologia/2019-01-15/amazon-destruye-millones-productos-nuevos_1758990/

c) Materiala:

- 8. *eranskina*. Kontsumo-ohituren bingoa, ikasle guztientzat inprimatuta
- Proiektorea/ordenagailua/bozgorailuak

d) Denbora:

1. zatia:

Bideoa ikustea eta ideia-jasa, 20'

2. zatia:

Bingoa, 10', eta ondorengo gogoetak, 20'

6. SAIOA: KONTSUMO ARDURATSUKO JARDUNBIDE EGOKIAK

a) Helburua:

Kontsumo arduratsua egin ahal izateko izan daitezkeen **jardunbide egokiak** eta erabil daitezkeen tresnak ezagutu eta haien gaineko gogoeta egitea.

b) Garapena:

Irakasleak sei taldetan banatuko ditu ikasleak, lehenago adierazitako irizpideei jarraituta (kopurua eta sexua kontuan hartuta). **Bi talderi urrezko arau bat emango zaie (murritztea), beste biri beste bat (berrerabiltzea) eta azken biei beste bat (birziklatzea).**

Talde bakoitzari **bere urrezko arauaren fitxa emango zaio**, egin behar duen jarduera deskribatuta duela (9. *eranskina*. *Kontsumo arduratsuko jardunbide egokiak*). 20 minutu izango dituzte jarduera horiek egiteko, eta bukatutakoan emaitzak eta egindako lanen proposamenak batera jarriko dituzte eta gogoeta txiki bat egingo dute elkarrekin.

Kontuz: berrerabiltzearen urrezko arauaren fitxa Iruñeko bertako adibideekin prestatuta dago; hortaz, jarduera beste toki batzuetan egiteko, kontuan izan behar da **interesgarriena tokiko benetako erreferenteak eskaini ahal izatea** dela, beraiek eskuratu edo joan ahal izateko modukoak. Horretarako, edo jarduera dinamizatuko duen pertsonak aurretik prestatuko ditu aurkitu beharreko toki batzuk, Iruñerako fitxaren ereduari jarraituta, edo ikasleei Interneterako sarbidea emango zaie, haiek izan daitezen bilatzen dituztenak. Gogoan izan birziklatzearen urrezko arauaren taldeen kasuan ere Interneterako sarbidea beharko dela. Webgune hauek eskaintzen dira espainiar estatuko bete toki batzuetako aukerak eta adibideak bilatzea errazteko:

alargascencia.org/es

pamapam.org

mercadosocial.net

mecambio.net

opcions.org

consumoconsciente.info

comerciojusto.org/

consumocolaborativo.com/directorio-de-proyectos/

ecologistasenaccion.org/21782/ingenios-produccion-colectiva-ipc/

Hausnarketarako gida:

Dela produktuak diseinatzeko dagoen moduaren bidez (hausteko, esate baterako, zaharkitzearen estrategian ikusten genuen moduan), dela publizitatetik eta inguruan dugun gizartetik egunero jasotzen ditugun mezuen bidez, **modu ez iraunkorrean kontsumitzera bultzatzen gaituzte**. Erraldoi handi baten antzekoa da, atzean zer dagoen ikusten uzten ez diguna, beste aukera batzuk daudela, kontsumo desberdina babestu eta bultzatzen duten beste ekimen eta pertsona batzuk. Enpresa handiek **hedabideen** boterea dute, eta haien bidez, errespetuzko ekonomia iraunkorra bultzatu ordez, etekin ekonomiko handienaren bilaketan oinarritutako beren ekonomia-eredua egiten dute ikusgai nagusiki. **Pertsona erneak eta informazioa dugunak izan behar dugu, gure hirian daudenak ezagutu behar ditugu**, existitzen baitira, eta, gainerakoan, has gaitezen sortzen!

Saioa amaitzeko, **“La Historia de las Cosas”** bideoa emango da, 15'05” minututik bukaera arte.

c) Materiala:

- *9 eranskina*. Kontsumo arduratsuko jardunbide egokiak inprimatuta 6 taldeentzat (bi, urrezko arauetako bakoitzeko)
- Ordenagailua/proiektorea/bozgorailuak
- Interneterako sarbidea eta ordenagailuak
- Papertegiko materiala

d) Denbora:

- Jarduera aurkeztea eta materialak banatzea, 5'
- Zereginak prestatzea, urrezko arauen arabera, 20'
- Batera jartzea, 25'

7. SAIOA: KONTSUMITZAILEEN BURUJABETZA I

a) Helburua:

Merkatuko botere-jokoak ulertzea eta, **kontsumitzaile garenez**, eredu ekonomiko bidezkoak eta arduratsuak sustatzeko dugun **erantzukidetasuna**.

b) Garapena:

Korporazioen boterea irudikatzeko dinamika bat proposatzen da saio honetarako. **Gune ireki batean**, gimnasioan... egin behar den jarduera da. **Jolas-jarduera** da, **zenbait probaren** bidez garatzen dena. Proba horietako bakoitzean, **zenbait baldintza** daude, taldeak puntuak eskuratzen doazen neurrian, hurrengo probei begira jokatu duten baldintza horien gaineko erabakiak hartu ahal izango dituzte; hartara, irabazten dituzten puntuak abantaila eman diezaiekete jokoan. Bestela esanda: **puntu gehien duen taldeak jokoaren arauak jarri ahal izango ditu**.

- **Lehen proba**. Lasterketak oinak lotuta. Bikoteka, baten oin bat bestearen beste oin bati lotuta eramango du. Irakasleak markatuko du ibilbidea edo distantzia. Taldeko bikote guztiak lehenbizi iristen diren taldeak 10 puntu irabaziko ditu.

- **Bigarren proba.** Tamaina desberdinetako bi uztai daude. Botatzeko marra bi uztaietatik distantzia berberera dago, eta sartu beharreko baloiak ere tamaina berekoak dira. Baloia sartzean datza proba. Baloi gehien sartzen duen taldeak 10 puntu eskuratuko ditu.
- **Hirugarren proba.** Ontzi bat urez betetzea edalontziekin. Iturriak eta ontziak distantzia jakin batera egon behar dute. Edalontzia urez bete eta ontziraino lasterka joan behar dute betetzeko, erreleboka. Bere ontzia markaraino betetzen duen lehen taldeak 10 puntu irabaziko ditu.
- **Laugarren proba.** Erreleboak puxikekin. Toki batetik bestera puxika bat eramatean datza. Puxikak helmugara eramatea lortzen duen lehen taldeak irabaziko du.

Lortzen dituzten 10 puntuko, *probako baldintzetako bat* aukeratzeko eskubidea izango dute. Hauek dira baldintzak:

PROBA	BALDINTZAK
Uztaiaren sartzea	- Erabiliko duten uztaiaren tamaina aukeratu ahal dute.
Ontzia betetzea	- Proba egiteko erabil dezaketen edalontzi-kopurua aukeratu ahal dute. - Ontziak zein mailataraino bete aukeratu ahal dute (dinamizatzen duen pertsonak jarritako gutxieneko batetik abiatuta, gehiegi ez desorekatzeko proba).
Erreleboak puxikekin	- Helmugaraino eraman behar duten puxiken kopurua. - Puxika aldi berean eraman behar duten pertsonen kopurua (puxika bat biren artean eraman edo bosten artean eraman). - Puxika non eraman behar den edo gorputzaren zein atalekin eraman aukeratu ahal dute.

Hausnarketarako gida:

Joko honen bidez, munduan “nagusi” diren agente inbertsore eta korporazio handien boterea erakutsi nahi da. Irits daiteke une bat non botere hori izango den epaileari esatea zein izango diren arauak. Hartara, zenbat eta puntu gehiago izan, orduan eta kontrol handiagoa duzu jokoaren arauen gainean eta, aldi berean, errazagoa zaizu puntu gehiago lortzea.

Baldintzak aukeratu behar izan dituzuenean: nola erabaki dituzue? Kontuan hartu dituzue gainerako taldeak, gehiago edo gutxiago berdinduta gelditzeko dena, ala zuen taldearentzat abantaila markatzeko baliatu duzue?

Indibidualismoa zutabe gakoa da sistema kapitalistan, *etekina maximizatze*ko helburua lortzeko. Indibidualismo hori errotzen joan da azken hamarkadetan harreman sozialetan, pertsonen elkarlaneko izaera suntsitzen, etengabeko lehia eta lehia suntsitzailea bultzatzeko. Interesgarria da horretaz ohartzea, lehiatzeko inertiak hartzen gaituenean.

Nola sentitu zarete “gero eta handiago” egiten ari zineten neurrian, puntuak irabazten ari zinetenean eta horrek erabakitze boterea, jokoaren arauetan eragiteko boterea, ematen zizuenean? Nola sentitu dira **galtzen joan diren taldeak**?

Zuen ustez, zer gertatuko litzateke joko jarraituko bagenu, proba gehiago egiten? Jokoa epaitzen ari den pertsonaren erabakietan eragiteko boterea izatera ere iritsiko zinatekete eta puntuak zuen alde jartzekoa... Gustatuko litzaizueke?

Batzuetan, supermerkatu batean edo saltoki handi batzuetan erostea denda txiki batean egitea baino merkeagoa da. Zergatik? Jokoan bezala, enpresa handiak halakoak dira puntuak eskuratzen joan direlako handitzen zihoazen neurrian. Puntu horiekin abantailak ematen dizkieten baldintzak erabakitzen joan dira, nahiz eta joko ez izan orekatua edo bidezkoa gainerako pertsona, agente, enpresa eta/edo langileentzat. Puntu horiek boterea ematen diete joko **nolako** den eta **arauak** zein diren erabakitze. Benetako munduan, puntu horiek erosten eta jaten ditugun produktuetan elementu kantzerigenoak edo osasunerako kaltegarriak erabiltzeko boterea ematen diete (horren gaineko informaziorik eman gabe, aukeratu ahal izateko produktu kaltegarriak nahi dituzun edo ez, eta tokirik utzi gabe, beste produktu garbi batzuk egoteko, kontsumitu ahal izateko). Edo gure arropa egiten duten edo lurretik gure elikagaiak biltzen dituzten pertsonen zenbat ordaindu aukeratu dezakete. Eskuarki, soldata oso txikia da, enpresei kostu gutxi ekarriko diona, nahiz eta gero pertsona horiek ezin dieten aurre egin oinarritzko gastuei, egunean 10 ordu lan egin arren. Hau da, edalontzien %90 erabiltzea aukeratzen dute ura eramateko beren ontzira, nahiz eta gainerako taldeek ez izan edalontzirik ura eramateko, helburua izanda hurrengo txanda irabaztea.

Erosten dugunean, nolabait babesten ari gara parte hartu nahi dugun jokoak nolako izan behar duen: babesten ari gara puntu gehien dituztenak, gainerakoen gainean erabakitze modua izan dezaten vs babesten ari gara pertsona guztiok jokoan zati bat izango dugun joko-mota bat. Saltoki handietan erosten ari garenean edo enpresa handiei, marka handiei, hazten jarraitzeko eta jokoaren arauetan nagusi izaten jarraitzeko puntu gehiago ematen ari gara. Saltoki txiki batean erosten dugunean, lurraren erritmoak eta giza eskubideak errespetatzen dituenen, boterearen balantza berdintzearen alde egiten ari gara: puntuak talde handi bati eman orde, puntu horiek familien artean banatzen goaz, inork ez izateko botere gehiagorik gainerakoen gainean, eta, hartara, pertsona, agente eta/edo enpresa guztien artean sortzen joateko jokoaren arauak.

Hori guztia errazago ikusi eta irudikatu ahal izateko, merkatuan gailentzen diren korporazio nagusien mapa erakuts daiteke ikasle guztientzat, **10. eranskinean dagoena (Elikadurako enpresa-taldearen mapa)**. Eta, hartara, talde berean dauden markak ikus daitezke. Badakizu denak korporazio-buru beraren barnean daudela? Eta horiek elikaduraren arlokoak baino ez dira. Mundu osoan, kapitalaren %80 herritarren %10ek pilatzen dute, eta herritarren %10 horiek dira mapan ikusten ditugun nukleo edo gune horiek zuzentzen dituztenak. Jokoan, nukleo horiek gainerakoen gainean abantaila ematen dieten erabakiak hartzearen bidez puntu asko eskuratzen joan den taldea da, nahiz eta azkenean joko ez zen bidezkoa. **Jokoaren baldintzek izan eta jan ditzakegun elikagai-motei eragiten diete**, jaten duguna egiteko erabiltzen diren osagaiei, hazien eta lurraren kontrolari, nork zer ekoitzi dezakeen erabakitze ahalmenari... **Ingurumenari** dagokionez, jokoaren baldintzak erabakitze botere horrek klima-aldaketa, animalia-espezieak desagertzea, itsasoak kutsatzea, gehiegi arrantzatzea eta abar ekartzen duten industria-jardunbideak ahalbidetzen ditu. Eta **giza eta lan-eskubideei dagokienez**, milioika pertsonaren lan-baldintzak aukeratu ditzakete. Izan ere, hilabetean 30 euroko soldatekin iraun behar dute, nahiz eta egunean 10 orduko edo gehiagoko lanaldiak egin.

c) Materiala:

- Soka
- Uztaiak
- Baloiak
- Ura
- Edalontziak
- Ontziak
- Puxikak
- Proiektorea eta ordenagailua

d) Denbora:

1. zatia:

Jokoa, 35'

2. zatia:

Baterako gogoeta, 15'

8. SAIOA – KONSUMITZAILEEN BURUJABETZA II

a) Helburua:

Konsumitzaile gisa pertsonen duten askatasunaren gainean gogoeta egitea eta *kontsumo arduratsuaren jardunbide egokiak* ikusgai egitea muga horren aurrean.

b) Garapena:

1. zatia:

Aurreko saioan landutako ideiak gogora ekarriko ditugu eta [Patri y Fer](#) bideoa ikusiko dugu. Benetan askeak gara aukeratzeko? Hiru hilabete behar izan dituzte, aukeratu zuten moduan bizi ahal izateko. Uste baino gehiago baldintzatzen gaituzte merkatuaren arauak, baina egin daiteke!

2. zatia:

Hasteko, **ideia-jasa egingo dugu, enpresa ekoizle txikiak, saltoki txikiak edo ikasleek ezagutzen dituzten tokiko ekimenak adierazteko.** Inork ezagutzen al du kooperatibarik? Kontsumo-taldeak? Inoren familian badute dendaren bat edo enpresa txikiren bat?

Gero, **ikasleak bi taldetan banatuko dira. Ikasleen erdiak kartelak prestatzeko antolatuko dira, komunitatean, auzoan eta/edo herrian ezagutzen dituzten denda txikienak.** Eta beste erdiek **kartel bat prestatuko dute, tokiko eta sasoiko produktuak kontsumitzearen abantailak** erakusteko. Ideala da aurreko saioko jokoaren, beste saio batzuen edo beren gogoetaren ondorioz beraiek ikusten dituzten abantailak agertzen joatea. Bestela, *11. eranskineko* dekalogoia (*Tokiko eta sasoiko kontsumoaren abantailak*) erabil dezakegu laguntzeko, ideia labur batzuk emanez, edo ideia horiek beren hitzekin jar ditzakete.

Kontsumo iraunkor baterako jarraibideak ematen zituen saioan egindako beste lanarekin batera jar daiteke kartel hau, urrezko hiru arauena. Hartara, nor garen eta nolakoak izan nahi dugun jakinda, benetan behar duguna ikusten dugu, behar dugun edo ez baloratzen dugu erosi aurretik, zein den aukera iraunkorrena, denboran gehiago iraungo didana, gehiago erabiltzeko modua emango didana, berria behar dugun edo behar horri erantzuteko beste modu batzuk dauden baloratzen dugu, produktuaren jatorria aztertzen dugu, zein baldintzatan egin den, zein izango den bere erabilera edo zertarakoa guk behar ez dugunean, zenbat zabor sortuko duen, eta, gero, behin erostea erabakitzen dudanean, nori erosi erabakitzea.

c) Materiala:

- Proiektorea/ordenagailua/bozgorailuak
- Errotuladoreak eta kartoi meheak

d) Denbora:

1. zatia:
Bideoa, 15'
2. zatia:
Kartelak, 35'

VII. EBALUAZIOA

Ebaluazioa modu jarraituan egingo da, unitate didaktikoa landu ahala. **Saio bakoitza amaitzean, galdeketa txiki bat egingo zaie ikasleei** beren iritziak biltzeko, besteak beste, saioaren antolaketari, taldeei, denborari, ikasleen interesari eta jorratutako kontzeptu berrien ulermenari dagokienez. Hartara, hurrengo jardueretan **egokitzen** egin ahal izango dira, proposatutako xedea eta helburuak lortzeko. Irakasleek funtsean **bi teknika erabiliko dituzte: behatzea eta jardueren ikasleek eman dizkieten erantzunak aztertzea**. Prozesu honetan aintzat hartu beharreko adierazleetako batzuk hauek izango dira: ikus-entzunezkoak eta testuak aztertzean ikasleen arreta eta gaitasuna, bakarka egindako esku-hartzeak, talde txikien funtzionamendua eta dinamikak, eta esku-hartzeak eta interakzioak talde handian.

Ebaluazio-irizpideak: adierazle giltzarriak

- Merkatuaren sistemak kontsumoa eragiteko dituen estrategiak identifikatzen dituzte.
- Kontsumoko eredu soziala, bere arazoak eta ondorioak ulertzen dituzte.
- Kontsumoari eta iraunkortasunari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutzen dituzte.
- Masen kontsumoaren ereduak ingurumenean, lan-eskubideetan, sindikatu-eskubideetan eta giza eskubideetan, eta pertsonen garapen psikoemotionalen dituen ondorioak bereizten dituzte.
- Kontsumo arduratsuen, kritikoaren, eraldatzaileen eta iraunkorren ohiturak eta ereduak identifikatzen dituzte.
- Enpatiazko jarrerak erakusten dituzte ingurumenarekiko eta ekoizleen lan- eta sindikatu-eskubideekiko.
- Jarrera positiboak eta elkarlanerako trebetasunak erreproduzitzen dituzte lehiaren aurrean.

- Gogoko duten edo ez duten zerbaiten aurrean hura onartu edo hari uko egiteko gai dira hurrenez hurren.
- Beren nahiak adierazten dituzte.
- Laguntza eskatzen dute behar dutenean.
- Parte-hartze aktiboa dute, bai bakarka, bai lantaldeetan ere.
- Ideiak garbi adierazteko gaitasuna erakusten dute.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen dituzte eta modu aktiboan entzuten dute.
- Aldatu egin dituzte aurretik zituzten ideia batzuk.

Unitate didaktikoa amaitzean, ikasleei eskatuko zaie **ebaluazio anonimo bat** egiteko, *12. eranskinean* jasota dagoena (*Ebaluazio-fitxa*). Zehazki, ikasleei ikasi dutenaren gainean galdetzen zaie, bereziki deigarria egin zaienaren gainean, gustatu zaienaren eta ez zaienaren gainean, zerbaitekin bereziki identifikatuta sentitu diren, beren ideietakoren bat aldatu den, eta, erantzuna baiezkkoa bada, zein...

VIII. BIBLIOGRAFIA

Parisko Akordioa, klima-aldaketa gainean, 2015. Hemen eskuratu ahal da: https://ec.europa.eu/clima/policies/international/negotiations/paris_es

Aramendía, H. "Luchar contra la 'fast-fashion', o cómo evitar que se tiren a la basura más de 16.000 toneladas de ropa al año". La Sexta noticias. 2019/07/31 https://www.la-sexta.com/noticias/ciencia-tecnologia/luchar-fastfashion-como-evitar-que-tiren-basura-mas-16000-toneladas-ropa-ano_201907305d41a6010cf28aa877751e79.html

Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen artikulua, "Pérdida y desperdicio de alimentos": <http://www.fao.org/food-loss-and-food-waste/es/>

BAN, Holes in the Circular Economy, 2018 http://wiki.ban.org/images/f/f4/Holes_in_the_Circular_Economy-_WEEE_Leakage_from_Europe.pdf

Bengoechea, M. (2005). Modelos comunicativos de género y su influencia presente y futura en la vida de niñas y mujeres. Liburua: Niñas son, mujeres serán (Gasteiz 2006). Emakunde, Sare 2005

Prentsa zentroa, deskribapen-oharrak, Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea, 2018/05/02. [https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/ambient-\(outdoor\)-air-quality-and-health](https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/ambient-(outdoor)-air-quality-and-health)

Chomsky, N. (2016) Who rules the World? Metropolitan Books (first published 2014)

Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen prentsa-komunikatua, 2018/05/02 <https://www.who.int/es/news-room/detail/02-05-2018-9-out-of-10-people-worldwide-breathe-polluted-air-but-more-countries-are-taking-action>

Alargaszentzia kontzeptua: <https://www.alargascencia.org>

Andaluziako Juntako Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Garapen Iraunkorreko Kontseilaritza, Ekoizpen Integratua eta ATRIAS:

<https://www.juntadeandalucia.es/organismos/agriculturaganaderiapescaydesarrollosostenible/areas/agricultura/sanidad-vegetal/paginas/produccion-integrada-atrias.html>

Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretua

Doyal, L. y Gough, I. (1991). A Theory of Human Need, Macmillan Education UK, 1991

G.C. "Amazon tira a la basura 3M de productos nuevos al año: "Es una aberración ecológica" El Confidencial. 2019/01/15. https://www.elconfidencial.com/tecnologia/2019-01-15/amazon-destruye-millones-productos-nuevos_1758990/

Global Footprint Network. 2016. National Footprint Accounts, 2016 Edition. Available at: www.footprintnetwork.org/en/index.php/GFN/blog/national_footprint_accounts_2016_carbon_makes_up_60_of_worlds_footprint..

Brundtland txostena. (1987) NBE, New York

Brundtland txostena edo «Nuestro futuro común», 1987koa, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordea

Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen txostena (2006). FAOren artikulutik jaso, hemen eskuratu ahal dena:

<http://www.fao.org/newsroom/es/news/2006/1000448/index.html>

Felicidad y Sociedad de consumo txostena (2017ko azaroa), Ecologistas en acción erakundearena. Interneten eskuratu ahal da: <https://spip.ecologistasenaccion.org/IMG/pdf/informe-consumimos-felicidad.pdf>

Planeta Vivo txostena, 2018 WWF GKEarena. Interneten eskuratu ahal da: Informe Planeta Vivo, 2016. Riesgo y resiliencia en una nueva era. WWF

Giza garapenari buruzko txostena (2015), Nazio Batuen Garapen Programa

Ingurumeneko Goi Mailako Institutua. Jardunaldi teknikoa: ekonomia zirkularra. <http://www.ismedioambiente.com/agenda/economia-circular-nuevo-modelo-economico-de-produccion-y-consumo>

Livestock Long Shadow Report (2006). Food and Agriculture Organization of the United Nations. Interneten eskuratu ahal da. <http://www.fao.org/3/a-a0701e.pdf>

Manes, F. (2016) ¿De qué hablamos cuando hablamos de felicidad?, El País, 2016/01/19. Interneten eskuratu ahal da:

https://elpais.com/elpais/2016/01/14/ciencia/1452776913_989265.html

Maslow, A.H. (1954). Motivación y personalidad, Ediciones Díaz de Santos, Madril, Espainiako argitalpena, 1991.

Max-Neef, M. (1993). Desarrollo a escala humana, Nordan - Icaria, Bartzelona, 2. arg., 1998

Mejía-Giraldo, J. F. (2016). El poder oculto de la carencia en los determinantes del consumo. Un análisis bibliográfico. Pensamiento & Gestión 2016, (40), urtarrila-ekaina, 2016, 113-128. or.

Hondakinen sorreraren gaineko oroitidazkia, Trantsizio Ekologikorako Ministerioa: <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/publicaciones/Memoria-anual-generacion-gestion-residuos.aspx>

Menenses, R. "La población refugiada en el mundo ha aumentado un 65% en los últimos cinco años, según ACNUR". El Mundo. 2017/06/19. <https://www.elmundo.es/internacional/2017/06/19/5946cff7ca474149158b456e.html>

Noah Harari, Y. (6/1/2019). Los cerebros 'hackeados' votan, El País. Hemendik aterea: https://elpais.com/internacional/2019/01/04/actualidad/1546602935_606381.html

Novo, M. (2006). El desarrollo sostenible. Su dimensión ambiental y educativa. Madril: UNESCO-Pearson.

ECD/65/2015 Agindua, urtarilaren 21ekoa, lehen mailako hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko eskumenen, edukien eta ebaluazio-irizpideen arteko harremanak deskribatzen dituen.

NBE Ingurumenaren erreportajea, 2019/06/03 <https://www.unenvironment.org/es/news-and-stories/reportajes/cinco-razones-por-las-que-la-contaminacion-del-aire-debe-importarte>

Tittensor, D.P., Walpole, M., Hill, S.L.L., Boyce, D.G., Britten, G.L., Burgess, N.D., Butchart, S.H.M., Leadley, P.W., Regan, E.C., Alkemade, R. et al. 2014. A mid-term analysis of progress toward international biodiversity targets. Science 346 (6206): 241-244. Doi: 10.1126/science.1257484. (2012)

World Happiness Report 2019, UN. Chapter 4: Happiness and Prosocial Behavior: <https://worldhappiness.report/ed/2019/happiness-and-prosocial-behavior-an-evaluation-of-the-evidence/>

BALIABIDE DIGITALAK

"La historia de las cosas" bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=ykfp1WvVqAY>

Binta y la gran idea" bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=meLXFL1FE8&t=21s>

"Patri y Fer" bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=hpmLHorl4NE>

Aztarna ekologikoa kalkulatzekoa: <http://www.tuhuellaecologica.org>

Bizirik irauteko planetak: <https://pensemosverde.com/2017/11/15/cuantos-planetan-necesitamos-para-sobrevivir/>

Iruñerriko Mankomunitatea, zaborren hautaketa: <http://www.mcp.es/residuos/donde-lo-tiro?nidcontenedor=2597>

Munduko petrolio-erreserbak: https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Pa%C3%ADses_por_reservas_probadas_de_petr%C3%B3leo

IX. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

BALIABIDEEN ETA KAKAHUETEEN ARTEKO HAZTAPENAK

Proiektatu arbelean laukia, jarduera egiteko erabiliko diren baliabideak kontuan hartuta. Aukerak bi dira: a) kakahuete gutxi egotea pertsonako edo b) kakahuete asko egotea pertsonako.

- Kakahuete gutxi badaude pertsona bakoitzeko:

Unitate 1 = oinarrizko premiak (elikatzea, aterpea hartzea, arropa, heziketa)

Unitate 1 = markak eta modak

Unitate 1 = elektronika (sakelakoa, ordenagailua, irratia...)

Unitate 1 = azken teknologiak (adibidez, beti azken modeloa edukitzea, aintzat hartuta soil-soilik izango dela erabilgarria hurrengo bertsioa arte edo ordeztzen duen teknologia sortu arte)

- Kakahuete asko badaude pertsona bakoitzeko:

Unitate 1 = oinarrizko premiak (elikatzea, aterpea hartzea, arropa, heziketa)

Unitate 1 = tabernan/jatetxean jatea hilabeteen behin edo bitan

2 unitate = tabernan/jatetxean jatea hilabeteen hirutan baino gehiagotan

2 unitate = erostera joatea (arropa, teknologia, aisiako gauzak...) hiru hileko bakoitzean

Unitate 1 = 2G duen sakelakoa

2 unitate = 5G duen sakelakoa


Unitate 1 = oporrak nire eskualdean

2 unitate = oporrak beste herrialde batean

2. ERANSKINA

ZENBAT MUNDU BEHARKO GENITUZKEEN GURE KONTSUMOARI EUSTEKO

Zenbat planeta beharko genituzke munduko biztanleriak herrialde honek bezala kontsumituko balu?



Global Footprint Network National Footprint Accounts, 2016

3. ERANSKINA


NIRE KONTSUMOA ALETZEN

Behar ditugun baliabideak, lehengaiak ez direnak, haiek lortzeko edo erabiltzeko behar ditugun gaien arabera bereizita daude. .

ENTSALADA (tokiko eta sasoiko kontsumoa) - Letxugak - Tomateak - Luzokerra - Tipula - Eskulana - Baratzetik dendara garraiatzea · Gidatzen duen pertsona · Ura · Gasolina - Kutxa - Ureztatzeko ura - Lurra - Ongarriak - Tratamendu pestizidak	HANBURGESA (janari azkarra) - Haragia • Behiak • Etxaldea (eraikina) • Ura • Gasa • Energia • Behiek edateko ura • Etxaldea garbitzeko ura • Sortzen dituzten hondakinak eta iraitziak kudeatzea • Ura • Garraioa • Biltegiak • Tratamendu-planta - Ura - Gasa - Energia • Larrea, bazkatzeko • Belarra • Lurra • Ura • Eskulana • Makineria • Ongarriak • Tratamenduak • Albaitaritzako zerbitzuak • Albaitaritzako tratamenduak • Hiltegia • Ura • Makineria • Eskulana • Gasa • Energia • Petrolio • Prozesatze-planta/harategia • Paketatzaileak • Haragia prozesatzeko makineria • Ura • Gasa • Energia - Letxuga, tomate, tipula eta luzokerra - Eskulana - Baratzetik dendara garraiatzea • Gidatzen duen pertsona • Ura • Gasolina - Dendatik jatetxera garraiatzea • Gidatzen duen pertsona • Ura • Gasolina - Kutxak - Ureztatzeko ura - Lurra - Ongarriak - Tratamendu pestizidak - Ogia • Irina • Ureztatzeko ura • Lurra • Ongarriak • Tratamendu pestizidak • Garraioa • Prozesatze-planta • Ura • Energia • Makineria
ELASTIKOA - Kotoia. Eta kotoia ekoizteko hauek behar ditugu: • ura • urra • ongarriak • intsektizidak / tratamenduak • haziak • eskulana - Makineria: • petrolio • ura • argindarra • planta nuklearrak • planta hidroelektrikoak • eguzki-plakak - Garraioa • petrolio - Ura - Tinduak • ura • produktu kimikoak • petrolio • argindarra - Josteko makina - Lisaburdinak - Josteko industria-nabea • argindarra • ura • gasa • garraioak - Eskulana	


4. ERANSKINA

AZTARNA EKOLOGIKOAREN INFOGRAFIAK DIETEN ARABERA




**Berotegi-efektuko gasen isurpenen batez
bestekoa 2.000 kilokaloriako dietetan**

*CO₂ baliokidearen kilogramoak**



Karbono-aztarna (g CO₂ baliok./kg)



5.1. ERANSKINA

TELE-DENDA KO IRAGARKIAK

1. produktua: paraxuta, xanpainaren kortxoak ez galtzeko.



2. produktua: inork pantaila ez zelatzeko produktua.



3. produktua: pastilla eferbeszenteak, hirugihar zaporea duen edaria izateko.



4. produktua: golf-jokoa, komunean zauden bitartean aritzeko.



5. produktua: angurriak eramatekoa.



Beste produktu batzuk:

http://vertele.eldiario.es/lostoptendevertele/anuncios-teletienda-absurdos_7_1245545434.html

5.2. ERANSKINA

PRODUKTUAK SALTZEKO ESTRATEGIA GAKOAK

1. taula. Produktuak saltzeko estrategia gakoak

Ez ematea produktuaren ezaugarri guztiak	“Zein da pastillen konposizio kimikoa hirugihar-zaporea izateko? Osasunerako onak dira? Zein dira baldintzak produktuak hain gutxi balio izateko?”
Produktuaren ezaugarriak puztu edo esajeratzea	“Angurria ia bakarrik joango da nahi duzun tokira”
Pertsonen sentimenetara iristen saiatzea, erosteko	<i>“Ergela sentitzen al zara bainugelako hormari begira?”</i>
Beharra sortzea	“Inoiz gehiago ez duzu istripurik izango festa batean xanpainarekin!”
Urgentzia sortzea	“Lehenbiziko 100 deiek baino ez dute lortuko...”
Hitz egiteko erabiltzen duten abiadura, ahotsaren tonua...	“Hemen ditugu produktu hauek...” (erabat azkar eta modu berritsuan)
Nola definitzen dituzten prezioak	“Produktu honetan inbertitzen duzun dirua ezin gutxiago da, izan ere...”

Iturria: guk geuk egina

6.1. ERANSKINA

PUBLIZITATEA ETA BEHARRAK

Irudi hauek inprimatu egin behar dira, banan-banan moztu eta ikasleei eman behar zaizkie:







6.2. ERANSKINA


PUBLIZITATEA ETA BEHARRAK. TAULA

Taula hau A3 tamainan inprimatu eta ikasleei eman:

ZEIN BEHARRI ARI ZAIO ERANTZUTEN?	
IDENTITATEA	MAITASUNA
ELKAR ULERTZEA	SORMENA
BIZIRIK IRAUTEA	BABESA ETA SEGURTASUNA
AISIA	NOR BERE BURUA BIDE BETETZEA / ZORIONTASUNA

Irudien sailkapena taulan, irakasleentzat.

IDENTITATEA



ULERMEN / ULERMENA




IRAUPENA



JOLASALDI / AISIA



MAITASUNA




SORMENA



BABESA ETA SEGURTASUNA



NORK BERE BURUA BIDE BETETZEA/ZORION TASUNA



6.3. ERANSKINA

PSEUDOSATISFAKTOREAK ECOLOGISTAS EN ACCIÓN ERAKUNDEAREN
KARTELA 2017

GIZAKION BEHARRAK
BERBERAK DIRA DENONTZAT*

*M. Max-Neefen teoria


				
bizirik irautea	babesa	maitasuna	elkar ulertzea	aisia
				
parte-hartzea	sorkuntza	askatasuna	identitatea	

**ALDATZEN DENA
DA HAIEI
ERANTZUTEKO MODUA**

				
bizirik irautea	babesa	maitasuna	elkar ulertzea	aisia
				
parte-hartzea	sorkuntza	askatasuna	identitatea	

7. ERANSKINA

BARNEAN BEGIRATZEN

	ZERK IDENTIFIKATZEN NAU? Identifikatuta sentiarazten zaituzten gauzak idatzi, marraztu, zirriborratu, zure isla ikusarazten dizutenak, zeure moduan sentitzen dituzunak, definitzen zaituztenak, zure nortasunarekin doazenak, zure izaerarekin eta sentitzeko moduarekin, harremanak izateko duzun moduarekin eta mundua ulertzeakoarekin, lotzen zaren kolektiboak...
	ZERK EGITEN NAU ZORIONTSU? Idatzi, marraztu, zirriborratu barrea eragiten dizuten gauzak, ongi sentiarazten zaituztenak, pozik egotea, inspiratzen zaituztenak, lasaitasuna ematen dizutenak...

8. ERANSKINA

KONTSUMO-OHITUREN BINGOA

1. Irakaslearentzako fitxa:

- Bi produkturen artean aukeratu behar dudanean, baloratzen dut zeinek iraungo didan gehiago.
- Erabiltzen ez nuen arropa birziklatu dut (edo beste gauzaren bat) eta beste erabilera bat eman diot.
- Oinetakoak zapatariari eramaten dizkiot hondatzen zaizkidanean, eta hausten zaidan arropa josten dut.
- Ezer erosi aurretik, benetan behar dudan edo zerk bultzatzen nauen erostera pentsatzen dut.
- Erosten ditudan produktuak zerez eginda dauden begiratzen dut (ekologikoak diren, ekoizpen iraunkorreko basoetakoak, material ekologikoekin eginak, besteak beste, kotoi ekologikoa, zura petrolioaren ordezt...).
- Erosten ditudan produktuak nondik etortzen diren begiratzen dut.
- Duela urte batetik baino gehiagotik erabili ez dudan arropa dut armairuan.
- Behin baino gehiagotan erosi dut gero erabili ez dudan zerbait.
- Dohainik ematen didatena hartzen dut, nahiz eta ez balio izan, ez behar izan edo ez erabili.
- Nire sakelakoa saltzea gustatuko litzaidake, beste modernoago bat erosteko.
- Nire ikaskide guztiek zuten zerbait erosi dut.
- Zerbait jantzi edo erabiltzen ez dudanean, zakarrontzira botatzen dut.

2. Ikasleentzako fitxa:

Zure kontsumo-ohiturei gehien egokitzen zaizkien sei esaldiak aukeratu eta jarri taulan.

Esaldiak esaten doan pertsonak taulan kokatu dituzunetako bat esaten duenean, marratu ezazu. Esaldi guztiak marratuta dituzunean, esan ozen “BINGO”.

- Zerbait jantzi edo erabiltzen ez dudanean, zakarrontzira botatzen dut.
- Behin baino gehiagotan erosi dut gero erabili ez dudanean zerbait.
- Ezer erosi aurretik, benetan behar dudanean edo zerk bultzatzen nauen erostera pentsatzen dut.
- Erosten ditudan produktuak nondik etortzen diren begiratzen dut.
- Nire ikaskide guztiek zuten zerbait erosi dut.
- Erabiltzen ez nuen arropa birziklatu dut (edo beste gauzaren bat) eta beste erabilera bat eman diot.
- Nire sakelakoa saltzea gustatuko litzaidake, beste modernoago bat erosteko
- Erosten ditudan produktuak zerez eginda dauden begiratzen dut (ekologikoak diren, ekoizpen iraunkorreko basoetakoak, material ekologikoekin eginak, besteak beste, kotoi ekologikoa, zura petrolioaren ordez...).
- Dohainik ematen didatena hartzen dut, nahiz eta ez balio izan, ez behar izan edo ez erabili.
- Oinetakoak zapatariari eramaten dizkiot hondatzen zaizkidanean, eta hausten zaidan arropa josten dut.
- Duela urte batetik baino gehiagotik erabili ez dudanean arropa dut armairuan.
- Bi produkturen artean aukeratu behar dudanean, baloratzen dut zeinek iraungo didan gehiago.

9. ERANSKINA

KONTSUMO ARDURATSUKO JARDUNBIDE EGOKIAK

MURRIZTU

Egunero erosten ditugun gauza guztiek ekartzen dute hurrengo txandetan ez gelditzea “kakahueteak mahai gainean”. Baliabide naturalak amaitzen ari gara: ura, erregai fosilak (petrolio), gasa, basoak, ekosistemak... Hori dela-eta, gure kontsumoa murrizten ikasi behar dugu, berriro pentsatu zer dugun, zergatik eta zertarako, eta geure buruari gogorarazi *zoriontasuna ez dagoela erosten dugunean, baizik eta garen horretan*.

Murrizteko estrategien adibide batzuk dituzue jarraian, zuen eguneroko bizimoduan gauzatu ahal dituzuenak. Eztabaidatu taldean, interesgarrienak, praktikoena, errazena, gertukoena iruditzen zaizkizuenak erabaki eta argudiatu zergatik, interesgarritzat jotzen dituzuen adibideak jarrita. Azken batean, zuen kontsumo-ohituretan sartuko zenituzketenak eta, horrenbestez, gainerako ikaskideekin partekatu nahi dituzuenak. Prestatu 2 minutuko azalpena, gainerako ikaskideekin partekatzeko, kontatu nahi diezuen komunikatu ahal izateko onena iruditzen zaizuen modua aukeratuta: kartoi mehe handi baten bidez, antzerkitxo bat eginez, abesti bat kantatuz...

Gauzak zaindu. Ditugun gauzak arduraz eta kontuz erabili behar ditugu, ahal den guztia iraun dezaten.

Mailegatu eta partekatu. Benetan beharrezkoa al da denok denetik izatea? Ezin dugu konpartitu duguna, mailegatu norbaiti behar duenean edo antolatu batera erabiltzeko? Ikasgelan daukazuen eta partekatu ahal diren gauzen adibideak eman ditzakezue?

Garraioa. Bizikleta edo garraio publikoa erabiltzen, CO₂ gas gutxiago isurtzen duzu (besteak beste, berotze globala eragiten ari den kutsadura) eta petrolio gutxiago kontsumitzen. Petrolio erauztearena izugarri kutsatzen duen industria da, eta, gainera, oso baliabide eskasa da eta gerra asko sorrarazi eta sorrazten dituena. Adibide moduan datu hau eman daiteke. Munduko petrolio-erreserba gehienak Venezuelan, Ekialde Ertainean eta Pertsiar golkoan⁶ daude. Entzun al duzu Irak, Iran, Siriako gerrez edo Venezuelako gatazkaz hitz egiten? Badakizu zenbat emendatu den errefuxiatuen kopurua azken urte hauetan⁷? Zure ustez, petrolio egotea toki horietan eta gatazkak edo gerrak gertatu izana herrialde horietan kasualitatea da?

Elikadura. Haragiaren industria gehien kutsatzen duen bigarrena da. Hau da, fabriken ondoren, behiaren xerrak edo *nuggets* esaten zaienak egitea munduan gehien kutsatzen duena da; izan ere, behiak edo kontsumorako animaliak hazten dituzten lekuek lur-eremu handiak eta ur asko behar dute. Gainera, gas kutsatzaileak eragiten dituzte, sortzen duten simaurraren bidez, eta bai lekualdatzeko behar dituzten garraio ugarien bidez ere. Haragia astean bitan jatea nahikoa da dieta osasungarria izateko, eta, gainera, iraunkor eta jasangarriagoa da ingurumenerako. Lurreko produktuak jateak, sasoiakoak eta tokikoak, oso eragin txikia du ingurumenean. Zer iruditzen zaizu txorizoa jan ordez fruta jatea hamaiketako egiteko? :D

Energia. Bonbilla bat aldatzea bezain gauza erraza. Egun, kontsumo baxuko bonbillak daude eta LED teknologia asmatu zuen pertsonari Nobel saria eman zioten, argiaren kontsumo energetikoan iraultza ekarri zuelako. Ospatu dezagun bere Nobel saria LED bonbillak jarrita eta energia gutxiago kontsumitzen! Baina arazoa ez dira bakarrik argiak...

6. https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Pa%C3%ADses_por_reservas_probadas_de_petr%C3%B3leo

7. %65, Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren arabera (UNHCR)
<https://www.elmundo.es/internacional/2017/06/19/5946cff7ca474149158b456e.html>

Ikusi al duzu telebista itzaltzen duzunean piztuta gelditzen den puntutxo gorria? Nahiz eta itzalita egon, argindarra kontsumitzen jarraitzen du. Puntutxo gorri horiek amaitzen dituzten konexio-blokeek, erregeletek, etengailua dutenek, etxeko kontsumoa gutxitzen dute. Entxuferik ez dagoen toki batean ez bazara bizi inoiz, beharbada ez zinen ohartuko zenbat behar dugun argindarra, zeinen mendeko garen. Zenbat entxufe daude zure etxean? Zenbatu dezakezu zenbat tresna elektriko erabiltzen dituzun egunean? Eta denak beharrezkoak al dira?

Ura. Zorionez, gu bizi garen eskualde honetan, munduko alde honetan, ez dugu ur-eskasiarik, baina horrek ez du esan nahi alferrik erabili behar dugunik: harrikoa egitean, hortz-haginak garbitzean, dutxatzean, arropa garbitzean... Hilabete batean zenbat ur-litro gastatzen dituzun kalkulatu ahal izango zenuke? Arropa garbitzera eramaten duzu zikina dagoenean ala tolesteko eta armairuan gordetzeko gogorik ez duzunean?


Materialak. Produktuak egiteko erabiltzen diren materialen kalitatea garrantzitsua da, iraunkorrak izan daitezen. Hau da, plastikozko kutxa batek eta zurezko batek berdin iraungo dute? 3 euro balio duen elastiko batek 20 euro balio duten batek adina iraungo du? Elastiko berria behar dugu bi hilabetetik behin ala bat bi urterako? Zer ekartzen dio ingurumenari bata edo bestea aukeratzeak?

BERRERABILI

Gauzen bizitza luzatzea, hori da urrezko arau honen xedea, *berrerabiltzearena*. Urrezko arau honen barnean, arreta berezia jarriko dugu azkenaldian jende askori kezka handia eragiten dion arazo batean: *plastikoen arazoan*. Pertsonak plastikotan bilduta bizi gara, plastikoz inguratuta, plastifikatuta. Behin erabili eta gero botatzeko plastikotan bilduta dator dena. Baita barazkiak ere, plastikotan bilduta etortzen dira! Plastikozko zenbat botila bota dituzu azken hilabetean birziklatzera? Espainian, birziklatzera botatzen dugunaren %40⁸ baino ez da benetan birziklatzen, eta gainerakoa plastikozko mendi batzuetara joaten da, azkenean itsasora iristen da, animalien sabeletara, edo haien lepoaren ingurura, airera, edaten dugun uretara... Orduan, kontuan hartuta azken hilabetean erabili dituzun plastikozko botilak, badakizu zenbat iritsiko diren plastikozko mendi batera edo ozeanora? Bueno, bada, pentsatu zenbat urte dituzun eta, zure ustez, zenbat biziko zaren, eta alderatu ekosisteman desintegratzeko botila batek behar dituen 500 urteekin. Beraz, ikusten duzu zergatik den garrantzitsua berrerabil daitezkeen produktuak erabiltzea erabilera bakarreko plastikoen ordeztu?

Erabilera bakarreko plastikoak ordeztu dituzten produktuez gain, trukatzearen, bigarren eskuko produktuen, konpontzearen eta, batez ere, gauzak zaintzearen aukera dugu! Jarraian Iruñeko eta Iruñerriko saltoki batzuk ageri dira, haietan bigarren eskuko gauzak saltzen, eta solteko salmenta (bilgarririk gabe, oihala/ontzia eraman eta han bete) eta trukea (gauza batzuk besteen ordeztu trukatzeko, tartean dirurik egon gabe) bultzatzen dute. Iruñeko eta Iruñerriko mapan aurkitu eta markatu behar dituzu, kolore desberdinekin eskaintzen dutenaren arabera, eta gero mapa azaldu gainerako ikaskideei. Ezagutzen al duzu zerrendan ez dagoen besteren bat? Gehi ezazu!

Biopompas Pamplona Xaboa soltean, ekarri botila eta bete Joaquín Beunza kalea, 11 31014 Iruñea	Geltokiko denda Bigarren eskuko gauzak eta soltean Oliveto Kondearen etorbidea, 6 31002 Iruñea, Nafarroa	Madre Coraje denda Bigarren eskuko gauzak Zangoza kalea, 38 31006 Iruñea
Toca Teja Bigarren eskuko gauzak Paulino Caballero kalea, 43 31003 Iruñea	Paris 365 Bigarren eskuko gauzak San Anton kalea, 47 31001 Iruñea	Kalaska – Zabaldi gunea Dirurik gabeko denda / Trukerakoa Navarrería kalea, 25 31002 Iruñea
Emausko Trapuketariak Artika Bigarren eskuko gauzak Artika kalea, 32 31014 Iruñea	Emausko Trapuketariak TrikiTraku Bigarren eskuko gauzak Arga Ibaiaren kalea, 36-38 31014 Iruñea	Emausko Trapuketariak Gayarre Bigarren eskuko gauzak Julián Gayarre kalea, 4 31005 Iruñea
Emausko Trapuketariak Hemen konpon Nork bere gauzak konpontzeko tailerra Gipuzkoako etorbidea, 11 31013 Berriozar	Zapatari Uharte Berreskuratzea, konpontzea, bigarren eskuko gauzak saltzea Zubiarte kalea, 15, behealdea 31620 Uharte, Nafarroa	Recycling Pamplona Berreskuratzea, konpontzea, bigarren eskuko gauzak saltzea Ostoki kalea, 1 31013 Antsoain
Rotxabikes Berreskuratzea, konpontzea, bigarren eskuko gauzak saltzea Artika kalea, 2 31014 Iruñea	Ingurumen Museoa Trukea Gipuzkoako etorbidea, 11 31013 Berriozar	Belar-dendetan erabilera bakarreko gauzak ordeztu dituzten produktu asko saltzen dira, besteak beste, hilekorako kopak, eramateko kizarak, banbuzko hortz-eskuilak, ogitartekoetarako bilgarri berrerabilgarriak... Ezagutzen duzu baten bat?



BIRZIKLATU

Birziklatzea prozesu bat da, hondakinak produktu berri edo lehengai bihurtzeko xedea duena, gero erabiltzeko. Hau da, balio ez duten gauzak erabiltzea objektu berriak sortzeko.

Birziklapenaren kontzeptuaren barnean arruntena zaborrak edukiontzi desberdinetan bereiztea da. Horrek ekartzen du gero zaborrak beste gauza batzuk egiteko erabili ahal izatea, jatorriz plastikozkoak edo paper eta kartoizkoak diren kontuan hartuta. Hartara, Nafarroan bost edukiontzi ditugu, eta haietako lautan produktuak birziklatu ahal dira: edukiontzi horira plastikozko ontziak botatzen ditugu; urdinera, papera; marroira, gai organikoak; eta iglu forma duenera, beira. Eta lau horiez gain, badago beste bat, erabat berdea, eta hartara berrerabili ezin diren gauzak, errefusa, botatzen ditugu, eta gero zabortegi batera joaten dira.

Ongi bereizten al dituzue hondakinak, edukiontziaren arabera? Ikus dezagun!

Lotu edukiontziak (letrak) eta hondakinak (zenbakiak), zuzen bereizi nahi dituzula pentsatuta.

1. Plastikozko ur-botila
2. Tetrabrika
3. Sukaldeko papera, piztarekin zikindua
4. Edalontzia
5. Lurra garbitutakoan bildutako hautsa
6. Zigarrokinak
7. Sukaldeko papera, urarekin bustia
8. Plastikozko jostailuak
9. Ardo-botila
10. Haragi- eta arrain-hondarrak
11. Frutaren azala
12. Hortz-haginak garbitzeko eskuilak
13. Latak
14. Paper-zapi bustiak
15. Bonbillak
16. Kortxozko tapoiak
17. Egunkaria
18. Ispiluak
19. Aluminiozko papera
20. Kortxo zuria (porespana)
21. Zartagina
22. Bizar-aitzurra



Amaitu duzunean, eta orduan besterik ez, begiratu zenbat jarri dituzun ongi:

Zer moduz joan da? Zalantzarik baduzu:

<http://www.mcp.es/residuos/donde-lo-tiro?nidcontenedor=2597>

A edukiontzia (errefusa): (3) sukaldeko papera, piztazarekin zikindua, (5) lurra garbitutakoan bildutako hautsa, (6) zigarrokinak, (8) plastikozko jostailuak, (12) hortz-haginak garbitzeko eskulak, (22) bizar-aitzura, (14) paper-zapi
bustiak, (4) edalontzia, (15) bonbilla, (16) kortxoak, (18) ispiak, (21) zartagina
B edukiontzia (ontziak eta plastikoa): (1) plastikozko ur-botila, (2) tetrabrikak, (13) lata, (19) aluminiozko papera, (20) kortxo zuria
C edukiontzia (papera eta kartoiak): (17) egunkaria, (7) sukaldeko papera, urarekin bustia
D edukiontzia (gai organikoa): (10) haragi- eta arrain-hondarrak, (11) frutaren azala
E edukiontzia (beira): (9) ardo-botila

Edonola ere, eta birziklatzea bikaina bada ere, hori ez da nahikoa, gakoa baita sortzen dugun zabor-kantitatea murriztea, egun ezin baita dena birziklatu (birziklatzeko edukiontzira botatzen dugunaren %40k baino ez du beste erabilera bat azkenean; gainerakoa zabortegira bideratzen da). Baina horretaz beste talde batek hitz egingo du.

Orduan, nola birziklatu ahal dugu guk geuk? Aukera asko daude, lantegiak, ikastaroak eta abar, eta, gainera, oso entretenigarria eta dibertigarria da.

Iruñean, birziklatzeko lantegiak, arropa kustomizatzekoak, birziklatzeko artisau-lantegiak... egiten dira hauetan: Iruñerriko Mankomunitatean, Ingurumen Museoan, Ekonomia Alternatibo eta Elkartasunezkoaren Sarean, Emausko Trapuketarrietan eta abarretan. Gainera, ezin dugu ahaztu aro digitalean eta informazioarenean bizi garela, eta, beraz, Interneten milaka ideia dagela, jada erabiltzen ez duzuna birziklatzeko eta bizi berri bat emateko ikusteko. Bilatu Interneten birziklapenaren arloko lantegiak, adibideak, ideiak, tutorialak, blogak eta abar eta gero aurkeztu gainerako taldeei.

Hona hemen ideia batzuk!



10. ERANSKINA

ELIKADURAKO ENPRESA-TALDEEN MAPA



11. ERANSKINA

TOKIKO ETA SASOIKO KONTSUMOAREN ABANTAILAK

- Enplegua sortzea jarduteko eremuan (eta egun dauden enpleguei eustea).
- Laborantzarako guneak berreskuratzea, eta, ondorioz, inguruko ekonomia biziberritzea.
- Industria osagarria sortzea, ekoizpen-gune baten inguruan (produktuak eraldatzeko, etiketatzeko...).
- Prezio bidezkoagoak izatea, garraioko kostuak murriztean eta bitartekaririk ez egotean.
- Gertuko produktueta gastatutako euro bakoitzeko, tokiko ekonomiarako bikoitza sortzen da.
- Janariari prozesu gutxi egiten zaio: nekazaritzaren kasuan, baratzetik sukaldara joaten da, garraiatzeko edukiontzi handietan biltegiratu eta hozkailuan ondu behar izan gabe. Horrenbestez, zaporea ere hobe du, kontsumorako une egokian biltzen baita.
- Garraioko kostuak murriztean, ingurumenari ere mesede egiten zaio, gas kutsatzaile gutxiago aireratzen baita.
- Garraiatzeko bilgarri gutxiago erabiltzen dira: gutxi bidaiatzen duen produktu bat ez da hainbeste babestu behar, batez ere produktu hori sasoikoa bada.
- Produktuaren trazabilitatea askoz ere fokalizatuago dago, badakigu nondik etorri den eta nola prestatu den. Badakizu zein pauso eman dituen Txinatik etorri den produktu batek zure etxera iritsi bitartean? Lantzea, ekoiztea, eraldatzea, biltegiratzea, bidaltzea, aduana igarotzea, saltzea eta kontsumitzea...
- Borroka monopolioen aurka: badakizu Espainian banatzen diren produktuen %80 10 enpresaren artean baino ez dutela egiten? Enpresa horiek finkatzen dituzte azken prezioak eta ekoizpenaren gainean agintzen dute. Zer gelditzen da ekoizleentzat? Tokiko ekoizle txikiak babesteak monopolio handien kontra borrokatzeko balio du.

12. ERANSKINA

EBALUAZIO-FITXA

Unitate didaktikoa

Kontsumo arduratsua: *Irauli etiketa*

Jarraian, jardueretan landu ditugun kontzeptuen eta ideien zerrenda bat duzu.

- Iraunkortasuna
- Kontsumoa eragiteko sistemak dituen tresnak eta haien eragina gure erabakietan
- Kontsumo-ereduaren eragina, pertsonen identitatean eta zoriontasunean
- Konexioa gure identitatearekin eta zoriontasunarekin
- Zaharkitze programatua eta hautemandakoa
- Jardunbide egokiak: birziklatzea, berrerabiltzea, murriztea
- Korporazio handien boterea
- Askatasuna, kontsumitzaile moduan

Esan dezakezu zein iruditu zaizun berria, interesgarria, zaila edo harrigarria, eta zergatik?

Berria	
Interesgarriena	
Zailena	
Deigarriena	

Landutako zerbaitetan zure eguneroko bizimoduarekin loturarik aurkitu duzu edo ez? Hala izan bada, zerbaitekin bereziki? Zergatik, zein zentzutan?

Zure ustez, zure kontsumoaz zenuen pertzepzioa edo merkatuak duen funtzionamenduarena aldatu da, ala unitate didaktiko honetako lana hastean zenituen ideia berberak izaten jarraitzen duzu?

Zure ustez, ezer aldatu da zure kontsumoan edo orain arte egiten zenuen modu berebean kontsumitzen jarraitzen duzu? Zure kontsumoa aldatu bada, zertan egin du? Zure ustez, zergatik aldatu da kontsumo hori?

Orain kontatu ahal dizkiozu norbaiti ideiak era arduratsuagoan kontsumitu dezan, edo, zure ustez, ezin duzu egin? Ingurukoei (lagunak edo senitartekoak) esan ahal izango zenizkieke proposamen batzuk edo ez zaizu batere bururatzen? Pertsonaren bati edo batzuei bereziki kontatu nahiko zenizkieke zure proposamenak? Nori? Zergatik?

Gozatu duzu jarduerak egiten ala aspergarriak eta zentzugabeak iruditu zaizkizu?

Zure iritziz, nolakoa izan da zure parte-hartzea eta inplikazioa saioetan? Zergatik?

Zure ustez, zerbait erosi aurretik galdera batzuk planteatzen laguntzen du unitateak? Zergatik?